



LAN HITZARMENA



Nafarroako **Ikastolen** Lan Hitzarmena
2019-2020



HITZAURREA

Erronka bikoitza dugu irakaskuntzako langileok. Batetik, gure herriko belaunaldi berrien hezitzaile garen aldetik, egunez egun hezkuntza euskaldun, askatzaile, inklusibo eta hezkidetzaillea garatzen saiatzea. Zoritxarrez, hau ez da lan batere erraza gaur egun, euskaldunoi ez baitzaigu aitortzen geure hezkuntza sistema propioa antolatzeko eskubidea. Honela, ikastolen sorreran parte hartu zuten maisu-maistra horiek irekitako bidetik urrats berriak ematea dagokigu guri, euskalduntze prozesua eta euskal kulturaren transmisioa bultzatuz Nafarroa osoan, euskal curriculuma garatuz edota Euskal Herri osoari begirako Euskal Eskola Publiko Komunitarioa egunez egun iruten beste sareetan norabide berean ari direnekin elkarlanean.

Bestetik, langile garen aldetik gure lan baldintzak hobetu nahi ditugu. Hezitzaile gisa dagokigun betebeharrari heltzen diogun indar berberaz aldarrikatzen ditugu gure eskubideak, eta baita gainontzeko langileenak ere. Izan ere, kapitala bizitzaren gainetik ezarri nahi diguten garai honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da langile kontzientzia piztu eta elkartasunez aritzea. Aldaketa orokorra baita behar duguna. Herriak eta pertsonak ekonomiaren izenean sakrifikatzen dituen sistema neoliberal hetero-patriarkalaren aurrean, komunitatearen eta pertsonen ongizatea eta zaintza erdigunean jarriko duen eredu sozial berria aldarrikatzen dugu.

Esku artean duzun 2019 eta 2020ko Nafarroako Ikastolen Lan Hitzarmena, kapitalak sortutako krisiaren ondorioz urte luze eta gogorretan lan hitzarmena berritu gabe egon ostean, Nafarroako Ikastoletako langileen borroka kolektiboaren emaitza da eta, oro har, Nafarroako Ikastolak osatzen dugun komunitate osoarentzat onuragarria izanen delakoan gaude.

Bertan topatuko duzu besteak beste:

- Azken lan erreformari aurre egiteko babes neurriak: ultraaktibitate mugagabea, ordutegi malgutasunik eza eta lan hitzarmena ez aplikatzeko prozedura adostua.
 - Jazarpen moral eta sexualerako protokoloa.
 - Baimen hobekuntzak.
 - Ikasturte baterako kontratatzen diren irakasleentzat urte beteko kontratua.
 - Lan baldintza berdinak irakasle itundu eta ez itunduen artean.
 - 2019an %2,5eko soldata igoera langile guztientzat.
 - 2020an %2,5eko soldata igoera + %1,25 leheneratzea langile guztientzat.
 - Errelebu kontratuetan bermeak errelebatu eta errelebulariarentzat 2017ko Nafarroako Itunpeko Akordioak irauten duen bitartean.
 - Hezitzaile eta Heziketa Bereziko Laguntzaile langile kategoria berriak.

Edozein kasutan ere, lan hitzarmen hau ez da helmuga, urrats berriak planteatu eta emateko tresna baizik. Eskerrak eman nahi dizkizuegu Lan Hitzarmen hau lortzeko urte hauetan modu batez edo bestez babesa, indarra eta lan ekarpena egin duzuen guztioi. Gogoeta berezia izan nahi dugu Lan Hitzarmen hau errealitatea izan zedin izugarri borrokatu zuen Esther Hernandorenarentzat. Hitzaurre hau berak 2007an idatzitakoan oinarrituta dago eta bera omentzeko keinu xume bat izan nahi du.

AURKIBEA

	I. TITULUA – Xedapen orokorrak
4.or	1. Kapituluak.- Eremuak
5.or	2. Kapituluak.- Hitzarmenaren amaiera iragartzea, berrikustea eta luzapena
5.or	3. Kapituluak.- Interpretazio Batzorde Mistoa
	II. TITULUA – Langileak
6.or	1. Kapituluak.- Langileen sailkapena
7.or	2. Kapituluak.- Langileen kontratazioa
12.or	3. Kapituluak.- Lanpostuak uztea
	III. TITULUA
12.or	1. Kapituluak.- Lanaldia eta plantilla
15.or	2. Kapituluak.- Oporrak
15.or	3. Kapituluak.- Gaixotasunak eta baimenak
20.or	4. Kapituluak.- Eguneratze eta hobekuntza ikastaroak
21.or	5. Kapituluak.- Eszedentziak
	IV. TITULUA – Ordainsariak
23.or	1. Kapituluak.- Xedapen orokorrak
25.or	2. Kapituluak.- Lansarien gehikuntzak
	V. TITULUA – Laguntza erregimena
25.or	1. Kapituluak.- Segurtasuna eta higiena
26.or	2. Kapituluak.- Hobekuntza sozialak
	VI. TITULUA
29.or	1. Kapituluak.- Sindikatuen bermeak
29.or	2. Kapituluak.- Sindikatuen ordezkariak
30.or	3. Kapituluak.- Sindikatuen afiliatuak
31.or	4. Kapituluak.- Negoziazioak eta IBM
31.or	5. Kapituluak.- Langileen ordezkariak edo enpresa batzordea
32.or	6. Kapituluak.- Elkartzeko eskubidea
	VII. TITULUA – Jazarpen moral eta sexualaren prebentziorako protokoloa
37.or	• Xedapen gehigarriak
38.or	• Xedapen iragankorrak
	• Eranskinak
39.or	1. Eranskina.- 2019 eta 2020ko lansarien taulak
42.or	2. Eranskina.- Langileen sailkapena
44.or	3. Eranskina.- Berdintasuna
46.or	4. Eranskina.- Balizko jazarpen moral edo sexuala jakinarazteko txantiloia
47.or	5. Eranskina.- 61. artikulua eguneratzea

Nafarroak Ikastolen Lan-hitzarmen kolektiboaren testua 2019 urterako

I. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

1. KAPITULUA- EREMUAK

1. artikulua.- Ikastoletako lan-harremanak Hitzarmen Kolektiboaren bidez arautuko dira, hitzarmen honen bidez edo luzatutako nahiz berrikusitakoaren bidez.

2. artikulua.- Lurralde eremua.-Hitzarmen hau Nafarroako Foru Komunitatean kokatuak dauden ikastoletan aplikatuko da.

3. artikulua.- Eremu funtzionala.-Hitzarmen honek ikastola gisa aitortuta dauden ikastolak hartzen ditu, Nafarroako Ikastolen Elkartearen partaide badira, titularra den erakundearen izaera edonolakoa izanik ere.

4. artikulua.- Langileria.-Hitzarmen honek, ikastola batean, besteren kontura eta lan-kontratuaren erregimenean zerbitzuak ematen dituzten langile guztiak hartuko ditu.

Hitzarmen honetatik kanpo gelditzen dira Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginak onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 1.3 eta 2. artikuluetan aipatutako langileak.

Era berean, kanpoan gelditzen dira jabetza duen entitateko bazkideak, nahiz lanak haren behar eta jardurekin zerikusirik izan eta lan-kontraturik ez eduki; betiere, langile horiek inongo lansaririk ez jasotzeko borondatea adierazi badute.

5. artikulua.- Iraupena.-Hitzarmena sinatzen den eguna edo noiz argitaratzen den Nafarroako ALDIZKARI OFIZIAlean gora behera, hitzarmen honek atzerako eragina izanen du ondorio ekonomikoei dagokienez, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31 bitarte. Denboraldi hori luzatutaz emanen da legez dagokiokeen epean, harik eta hurrengo Hitzarmenak indarra hartzen duen arte.

6. artikulua.- Lanaren antolaketa:

Diziplina eta laneko antolaketa ikastolako titularraren berariazko ahalmena da.

2. KAPITULUA.- HITZARMENAREN AMAIERA IRAGARTZEA, BERRIKUSPENA ETA LUZAPENA

7. artikulua.- Hitzarmen hau urtetik urtera luzatuko da, isilbidez, 2019ko abenduaren 31tik aitzina, baldin eta ez duen ordezkari den edozein partek hitzarmenaren edo haren edozein luzapenen amaiera iragartzen, indarraldia bukatu baino bi hilabete lehenagotik bederen.

8. artikulua.- Behin Hitzarmenaren amaiera aipatu moduan eta epearen barrenean iragarri, parte sinatzaileek konpromisoa hartzen dute eztabaidan hasteko, Hitzarmen edo luzapenaren mugaeguna baino hilabete bat lehenagotik, gehienez ere.

9. artikulua.- Hori horrela, nahiz eta Hitzarmenaren amaiera bi hilabete lehenagotik espresuki ez iragarri, indarraldiaren amaiera baino 45 egun natural lehenagotik bederen hasiko dira elkarrizketak, ordainsari eta lan-baldintzen berrikuspena negoziatzeko, hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aitzina eragina izan dezaten.

3. KAPITULUA.- INTERPRETAZIO BATZORDE MISTOA

10. artikulua.- Interpretazio Batzorde Misto bat eratuko da, Hitzarmenaren testua interpretatzeaz arduratuko dena, edozein partek eskatuz gero.

11. artikulua.- Batzordea, gehienez lau kidek osatuko dute Ikastolen Elkarteen ordezkari bezala, eta gehienez beste lau kidek, Hitzarmen Kolektiboa sinatzen duten Sindikatuen ordezkari gisa.

12. artikulua.- Interpretazio Batzorde Mistoaren eginkizunak dira:

a) Hitzarmen honetan erabakitakoa interpretatzea.

b) Hitzarmen honetan adierazten diren gainerako guztiak.

13. artikulua.- Interpretazio Batzorde Mistoaren funtzionamendua arau hauei lotuko zaie:

1. Hitzarmen hau sinatzen den unean berean eratuko da Batzordea.

2. Batzordeak berak bi kide hautatuko ditu batzordeburu eta idazkari lanetan aritzeko.

3. Akordioek balioa izateko Batzordeak eraturik egon beharko du, parte bakoitzeko bi kide bederen bertan daudela.

4. Erabakiak batzordekideen gehiengo soilaz hartuko dira.

5. Batzordeak hartzen dituen akordioak eta horien aktak Hitzarmenaren eranskinak izanen dira.

6. Batzordearen erabakiak, beranduenez, 60 eguneko epean hartu beharko dira, kontsulta egiten den egunetik aitzina.

7. Batzordeburuak eginen ditu biltzeko deiak edo, bera ez badago, bi parteetako edozeinek.

8. Idazkaria erabakien berri emateaz arduratuko da.

II. TITULUA - LANGILEAK

1. KAPITULUA - LANGILEEN SAILKAPENA

14. artikulua.- Hauek dira Hitzarmen honen aplikazio eremuaren barrenean sartzen diren langileak, egiten duten lanaren arabera:

I. taldea: a) Irakasleak

Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza

- Zuzendaria
- Mailako arduraduna
- Zikloko koordinatzailea
- Arloko burua
- Irakasle titularra
- Irakasle espezialista

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza - Batxilergoa

- Zuzendaria
- Mailako arduraduna
- Arloko burua
- Irakasle titularra
- Irakasle espezialista

b) Irakaskuntzako langile teknikoak

- Psikologoa, Pedagogoa

c) Irakaskuntzako Laguntza Zerbitzuetako langileak

- Instruktoea

II. taldea: a) Administrazio langileak

- Administrazio-burua edo Idazkaritza-burua
- Administrari-ofiziala
- Administrari laguntzailea

III. taldea: a) Zerbitzu Orokorretako langileak

- Sukaldari nagusia
- Sukaldaria
- Sukaldari laguntzailea
- Atezaina
- Mantentze-lanetako langilea
- Jantoki eta Garbiketa Zerbitzuetako langilea
- Zaindaria
- Zerbitzu anitzetako langileak

IV. taldea: a) Haur Hezkuntzako Hezitzailea

b) Heziketa Bereziko Laguntzailea

15. artikulua.- Zehaztu diren kategoria horiek sailkapen konturako dira eta ez da beharrezkoa guzti-guztiak edukitzea ikastolaren tamainak edo jarduerak ez badute horrela eskatzen, eta irakaskuntza maila, gradu edo modalitate bakoitzerako indarra duten legezko xedapenek horretara behartzen ez badute.

16. artikulua.- Kategoria guztien definizioak Hitzarmen honen II. Eranskinean jaso dira.

2. KAPITULUA - LANGILEEN KONTRATAZIOA

17. artikulua.- Lan-kontratuak ez du berez mugaegunik. Hala ere, iraunaldi jakin baterako lan-kontratuak egin daitezke:

-Zenbait zerbitzutarako, ikastolaren ohiko jarduerak ez badira.

-Lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileak ordeztu behar direnean. Orduan langile ordeztuaren izena, ordezpenaren iraunaldia eta izaera adieraziko dira.

-Jarraituko ez duten zerbitzuak direnean ikastolak obra edo eginbehar zehatzetako kontratuak egin ahalko dira, indarrean dauden legeekin bat etorri eta hitzarmeneko tauletan jarritako soldatak errespetatuz. Langileen Estatutuaren 15.1.B testu bilduaren arabera eginiko kontratuak, hots, zereginen pilaketarakoak, azken 16 hilabeteko epean guztira 12 hilabetetan gehienez egin ahalko dira, erabilpena justifikatzen duen zergatiak edo pilaketak ahalbidetzen duen egunetik aurrera aintzakotzat hartuz.

-18. artikuluko baldintzak betetzen ez direnean.

Kasu horietan, espresuki adieraziko dira lan-kontratuan artikuluko honetako arrazoiak, aldi baterako lan-kontratu egitera eraman dutenak.

Ikasturte oso baterako kontratatzen den irakaslearen lan-kontratu urtebetekoa izanen da.

Ikastolek ez dute langilerik kontratatuko aldi baterako lan enpresen bitartez eta, hortaz, lan-poltsa prestatuko da. Hitzarmen hau sinatzen duten sindikatu guztiek izanen dute esku poltsa horretan, behar diren langileak kontratatzeko. Sindikatuen, irakaskuntzako patronalen eta Nafarroako Gobernuaren arteko akordioetan beste poltsarik edo antzekorik hitzartuz gero, haren ordeztu izanen da poltsa hau.

Irakasle gisa kontratatzen diren langileei, eta aldi baterako, bai beste zuzendaritza-eginkizun batzuk garatzeko, hala nola, ikasketa-buru, hezkuntza etapa edo ziklo arduradun, bai ikastolen Elkarteak Partaiderekin-Nafarroako Ikastolen Elkartearekin lankidetzan edota ikastolan bertan ikastolako beste zenbait eginkizun betetzeko ardura hartzen dutenei, aldi iragankor hau irakasle lanpostuaren erreserba duen eskubide bezala aitortuko zaie berariazko agiri batean eta mugikortasun funtzionaleko aldi hau ordezkapen kontratu baten bitartez bete ahal izango du ikastolak, bertan argi eta garbi azaldu beharko delarik ze pertsona den ordezkatzeko dena, zein den ordezkapenaren zergatia eta lanaldi zehatza.

Prestakuntzako edo praktikaldiko kontratu gisa egiten diren kontratazioak lansarien tauletan ezarritakoaren arabera ordainduko dira. Irakasle itundu eta ez itunduek soldata eta lan baldintza berdinak edukiko dituzte, hitzarmen honetan zehaztutakoaren arabera.

18. artikulua. Lan-kontratuak, edozein dela ere modalitatea, idatziz egin beharko dira eta hirukoiztua, ale bana bi aldeentzat eta hirugarren kopia sindikatuen ordezkarien esku gelditzeko.

Lan-kontratuan klausula bat sartu ahal da, langileak bere ikastolako Estatutuak betetzeko konpromisoa hartzen duela dioena. Horien aplikazioak ez du inoiz dirua jartzera behartuko plantillan sartu ahal izateko, Estatutuak aurkezten bazaizkio, betiere.

19. artikulua.- Irakasle gisa kontratatzeko, lanposturako eskatzen den titulazioaren jabe izan beharko dute eta, gainera, euskarazko titulu egokia.

Kontratazioari buruz Hitzarmen honetan biltzen diren aintzin-gibelak, eta bereziki 20-b), 22-a) eta b) eta 24-a) artikuluetan jasotako eskumena eta eginkizunak gainbegiratzeko, Kontratazio Batzorde Tekniko bat sortuko da Hitzarmena sinatzen den unean. Sindikatuetakoa hiru kidek eta Ikastolen Elkarteetakoa beste hiruk osatuko dute, eta gaitua egonen da behar diren kudeaketa eta hartu-emanak burutzeko. Horretarako, aldeek kontuan hartuko dute Nafarroako Gobernuarekin hitzartutako Akordioa (gardentasun neurriak, baremazioa eta abar) betiere Ikastolen Hitzarmena errespetatuz.

Kontratazio Batzorde Teknikotik eskatzen den soberakin eta beharren aurreikuspena, zuzendaritzak eta delegatu-komitekideek partekatuko dute jakinda:

- Profilen definizioa, ikastolen kontratazio beharrak eta kontratazioak Ikastoletako Artezkaritzari edota zuzendaritzari dagokiela. Aldeek aukera izanen dute norberaren ikuspuntua Kontratazio Batzordeari Teknikoari helarazteko.
- Kontratazio prozesua Ikastolako Batzorde Parekideari dagokiela.

20. artikulua.- Irakasleen lekualdaketak.-Lerrun handiagoko arautegiak, hau da, nahitaez bete beharrekoak, horren gainean adierazten duena ezertan ukatu gabe, lanpostu betegabe bat hornitzerakoan, ondoko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Hitzarmen honek eragindako ikastola batean mugagabea duen kontratua eta gutxienez hiru urte segidan lan egin duen edozein irakaslek beste ikastola batera aldatzeko eskubidea izanen du, ikastola hori ere Hitzarmen honek arautua bada.

Inguruabar bereziak gertatuz gero, Hitzarmen hau sinatu duten aldeek epe hori murriztu ahalko dute zenbait kasutan.

Arlo honetan soberan daudenek lehentasuna dute lekualdatze honetan sartzeko, nahiz eta ez bete aurreko ataletan eskatutako gutxienekoak.

b) Kontratazio Batzorde Teknikoak, edo horren eskumena hartzen duenak, adieraziko du zein epetan egin beharko diren lekualdaketak, eta ikastola guztiei emanen zaie horren berri.

c) Lekuz aldatzeko eskubidea dutenak kontratatzeko, Hitzarmen honen 24. artikuluan bildutako hautapen irizpideak aplikatuko dira.

Horretarako, ikastola bakoitzeko Kontratazio Batzorde Parekideak gutxieneko balorazioa ezarri ahalko du, eta 100 puntutatik 60 gutxienez eskatu ahalko zaizkio lekualdaketa egin nahi duenari.

d) Lekuz aldatzeko eskubidea erabiltzen duen langileari lan-baldintzak mantenduko zaizkio aurreko ikastolan, harik eta kontratu berria sinatzen duen arte.

e) Lanpostua lekualdaketaren bidez eskuratuz gero, toki berrian indarra duten baldintza ekonomikoak aplikatuko dira.

f) Lekualdaketa egitean, ordura arteko ikastolan eskuratutako antzinasuna oso-osorik onartuko da.

Dena den, hauek dira onarpen horrek ekarriko dituen ondorio ekonomiko bakarrak:

-Aurreko ikastolan eskuratutako antzinasuna sei urtetik gorakoa bada, irakasleak ikastola berrian bi hiru urtekoen balio ekonomikoa jasoko du, bertara sartzen den egunetik aitzina.

-Antzinasuna sei urtetik beherakoa bada, urte horiek hiru urtekoak kalkulaterakoan hartuko dira kontuan.

21. artikulua.- Irakasle trukeak.-Hitzarmen honen eraginpeko ikastola batean gutxienez hiru urte segidan egin dituen langileak trukerako eskubidea erabili ahalko du antzeko egoeran dagoen beste langile batekin, baldintza hauen arabera:

-Bi ikastoletako Kontratazio Batzorde Parekideen aldeko erabakia izatea.

-Irakaskuntza ertainetako irakasleen arteko trukea baldin bada, eta non ez dagoen testu hau espresuki hobetzen duen erabakirik, espezialitate bateragarri eta egokietakoak izatea eskatuko zaie irakasle horiei.

-Antzinasunean, trukea burutu baino lehen bakoitzaren hirurtekoen balioa hartuko da kontuan, ondorio ekonomikoetarako soilik.

Negoiazio mahaia osatzen duten aldeek, salbuespenak daudenean, ikastola berean egin beharreko hiru urte horien epea gutxitu ahalko dute.

22. artikulua.- Deialdi irekia.

a) Lekualdaketen epea amaiturik, oraindik hutsik gelditzen diren lanpostuen zerrenda egin eta argitara emanen da, eta ikastola guztiei jakinaraziko zaie.

Halaber, epe bat irekiko da lanpostu betegabe horietarako eskaerak egin daitezen, ezarriko den moduan.

b) Lehen sailkapen bat egingen da lanpostu betegabeak nahi dituztenekin, eta ikastolei jakinaraziko zaie, behar diren tituluen baldintzak betetzen dituztenen zerrenda aurkeztuz. Halaber, zerrenda horretan, daturik aipagarrienak adieraziko dira: helbidea, irakaskuntzan aritutako urteak, titulazioa eta abar.

23. artikulua.-Ikastolako Batzorde Parekidea.-Kontratazio kontuetarako, ikastola bakoitzean Kontratazio Batzorde Parekidea eratuko da; alde batetik irakasleen ordezkariak osatuko dute eta, bestetik, ikastolaren ordezkariak.

Klaustroak izendatuko ditu irakasleen ordezkariak.

Halaber, ikastola bakoitzeko Kontratazio Batzorde Parekideak ezarriko ditu irakasle ez diren langileak kontratatzeko irizpideak. Kasu honetan, langileen ordezkariaren erdia irakasle ez diren langileak izanen dira.

Ikastolako zuzendaria Batzorde Parekidearen partaide izanen da, hizpidea bai baina botorik gabe, aholkulari moduan.

Kontratazio Batzorde Parekideak bere eginkizunak beste batzuen esku utzi ahalko ditu, edo bestela, egokitzat hartzen dituen teknikarien esku.

24. artikulua.- Irakasleen kontratazioa.

a) Ikastola bakoitzeko Kontratazio Batzorde Parekideak prestatuko ditu irizpideak, baita horiek baloratzeko modua ere.

Behin irizpideak zehazturik, Interpretazio Batzorde Mistoari jakinaraziko zaizkio eta, salaketarik egonez gero, ikastola bakoitzeko Batzorde Parekideak ezarritakoa aztertuko du.

Kontratazio prozesuetan ezin izanen dute eraginik izan hautagaien ideologiek, genero, sexu orientazioek eta/edo erlijio ideiek edo ikuspegiek.

Era berean, ikastola bakoitzeko iragarki oholean agertuko da Batzorde Parekideak erabakitakoa.

b) Batzorde Parekideak ehun puntutatik halako puntuazio bat emanen dio izangai bakoitzari.

Edozein izangaik lortutako puntuazioa eta zein hurrenkeran gelditu den ezagutzeko eskubidea izanen du.

c) Behin 10 lanegun iraganez gero, Kontratazio Batzorde Parekideari edo Interpretazio Batzorde Mistoari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, ikastolak puntuaziorik handieneko izangaia kontratatuko du.

d) Ikastolak ez badu prozesu guztia betetzen, Interpretazio Batzorde Mistoak ikastolari zehapena ezartzea proposatu ahalko du.

25. artikulua.- Ordezpeneko eta epe jakin baterako kontratuak.

1. Ordezpen kontratuak egiteko ere Batzorde Parekideak parte hartu beharko du aurreko artikuluan adierazitako eginkizun berekin; alabaina, ahalik eta prozesu laburrena izanen da, presaren arabera kasu bakoitzean.

2. Behin-behineko harremana bukatutakoan, hala eskatzen duten langileei ikastolak ziurtagiri bat emanen die ordezpen kontratua edo epe jakin baterakoa izan duten langileei, ikastolan lan egindako egun kopurua, betetako lanpostua... adieraziko duena.

3. Kontratazio Batzorde Teknikoak edo ahalmen hori harengandik hartzen duenak epe finkorik gabeko kontratua duten langileen zerrenda eskuratuko die ikastolei. Bertan, beste datu interesgarrien artean, haien espezialitatea eta lan egindako egun kopurua agertuko dira, ikastola bakoitzeko Batzorde Parekidearen lana erraztearren.

4. Ordezpenak egiteko kontratuetan, lehenetasuna izanen dute irakaskuntzan esperientzia handiena frogatzen dutenek, ikastolak eskatzen dizkien gaitasun baldintzetan berdintsu dabilzanetan.

3. KAPITULUA – LANPOSTUAK UZTEA

26. artikulua.- Lanpostua uztea eta azken kitatzea.

a) Ikastolako zerbitzua bere borondatez utzi nahi duen langileak, ikastolari jakinarazi beharko dio, idatzita, 30 egun lehenagotik.

b) Langileak ez badu betetzen abisua aipatu epean emateko betebeharra, ikastolak eskubidea izanen du haren likidaziotik bi eguneko lansaria kentzeko epea gorde ez duen egun bakoitzeko, eta gehienez ere, abisu emateko epeari dagokiona.

c) Ikastolak abisua jasotzen badu ezarritako denboran eta moduan, langileari lan-harremanaren bukaeran dagokion likidazioa ordaintzera behartua egonen da. Betetzen ez badu, langileak eskubidea izanen du bi eguneko lansaria jasotzeko likidazioaren ordaintzetan atzeratutako egun bakoitzeko, eta gehienez ere, abisu emateko epeari dagokiona.

d) Langile batek laneko harremana bere borondatez amaitu duela eta langile eskubideak bete direla dioen dokumentua, langileen ordezkarien, enpresa batzordearen edo sindikatuen esku egonen da bi laneguneko epean.

III. TITULUA

1. KAPITULUA.- LANALDIA ETA PLANTILLA

27. artikulua.- Irakasleen klase orduak ondoko hauek izanen dira:

- Haur Hezkuntzan (3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzan: 23 ordu astean.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: 19-22 ordu astean.
- Batxilergoan: 19-21 ordu astean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zikloetan tutore lana egiten duten irakasleek 21 eskola ordu beteko dituzte, tutoretza barne.

Haur Hezkuntzan, jolasgaraia ere ordutegi horretan sartua dago; Lehen Hezkuntzan, ikastordu bezala hartuko da jolasgaraian bertan lanean ari diren irakasleentzat; gainerako mailetan, aurreko ikasturtean bezala zainduko da jolasgaraia.

28. artikulua.- Klase ordutegia da eskolaldi guztian ikasleei zuzenean eskaintzen zaiona.

29. artikulua.- Ikasturtea hasi aurretik, laneko eta eskolako egutegia ezarriko da langileen ordezkariekin adostuta. Kontuan hartuko dira jaiegunak eta hezkuntza administrazioaren jarraibideak.

Eskola ordutegi horretan irakas-saioak adieraziko dira, irizpide hauek aplikatuta:

1.- Ahal dela, 26. artikuluan irakasleentzat ezarritako klaseko ordutegia saioetan banatuko da normalean. Horiek, eskuarki, 60 minutukoak izanen dira. Ikastolak ezartzen baditu 50 eta 55 minutuko saioak, irakastordu bat bezala zenbatuko dira.

2.- Arrazoi pedagogikoak, ordutegiaren beharrak edo ikastolaren antolaketari lotutakoak gertatzen direnean, saio motzagoak jartzen ahalko dira. Horretarako, ikastolak eta langileen sindikatuetako ordezkariak negoziatuko dute haien kopurua, iraunaldia eta banaketa, baina irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Saiorik motzera 30 minutukoa izanen da; motzagarik baldin bada, ordu erdikotzat hartuko da.

a) Ahal dela, ez ditu irakasle batek bakarrik hartuko 50 minututik beherako saioak, non ez dituen bere borondatez onartzen.

a) Arreta berezia eskainiko zaio lan egiteko moduak irakasleen baldintza psikofisikoetan izan dezakeen ondorioari.

a) Ahal bada, beharrezko atsedendialdiak jarriko dira saioen artean, hauen kopurua eta maila ikusita, saio osoak egiten dituztenen antzeko erritmoaren bila.

a) Zenbat langile dauden ikusita, txandaka emanen zaizkie saio motzak irakasleei.

Eskolak, irailean hasiko dira eta ekainaren amaieran bukatu, Nafarroako Gobernuak ezarritako egutegiaren arabera.

Udalerriko gainerako ikastetxeekin batera koordinatu behar izanez gero, ikastolako organo eskudunak eskola egutegia ezar dezake, klaustroari jakinarazi ondoren.

Langileen Estatutuaren 34.2 artikulua lanaldi banaketa irregularraren %10 ezartzen du aldean borondatearen osagarri moduan. Hitzarmen honek lanaldiaz jasotzen duen erregulazioaren arabera, ez da beharrezkoa honen banaketa irregularrerako portzentajerik ezartzea. Hau dela eta, hitzarmenean adostutakoa legeak eskatzen duen ituntzat hartu behar da

eta, hortaz, aipatutako artikulua aurreikusten duen malgutasunaren %10 ordezkatzeko eta baliogabetzen du. Honek ez die eragingo irteera pedagogikoei.

30. artikulua.- Irakasleek urte osoan sartu beharreko orduak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ikastoletako langileek dutenarekin parekatuko da lansarien homologazioan aurrera egin ahala; izan ere, guztiendako hitzarmen bakarra izatea da helburua, Nafarroako baldintzek horretarako aukera ematen dutenean, betiere.

Urte osoan ikastolan sartu beharreko lan-orduak 1.180 dira. Gainera, langileen eta ikastolen ordezkariak ikastola bakoitzean ikasturte hasieran erabakiko dute zein baldintzatan egingen diren irteera pedagogikoak, haien konpentsazioa dirutan edo ordutan, pedagogia arloko nahiz kudeaketaren erantzukizunak nola banatu, 38. artikuluan aipatu gabeko birziklapenak, eta abar. Beharrezkoak dira guztiak ikastolak ongi funtzionatuko badu; erreferentzia gisa azken ikasturteko dinamika hartuko da.

Ikastolan garatu beharreko jarduerak banatzeko eta 27. artikulua segurtatzeaz gain, kontuan hartuko dira ebaluazioetako azterketak eta nahitaez egin beharrekoak, klaseen eta laborategiko orduen prestaketa, programazioak, zaintzak, jolasaldiak, berreskurapenak, bilerak, gurasoekiko elkarriketak, baita eguneratzeko eta hobekuntzako ikastaroak ere. Banaketa horren eredutzat, aurreko ikasturtean egindakoa hartuko da.

Zein den ere ordu banaketa, gutxienez 1.056 ordu sartu beharko dira ikastolan bertan, irakastorduen eta ordu osagarrien artean, eskolako egutegiaren barrenean ikasleak ikastolan dauden egunetan banaturik.

Orokorrean lan jarduera osoa ez denean proportzioan murriztuko dira eskolaorduak eta ordu osagarriak jardunaldi osoarekiko.

31. artikulua.- II, III, eta IV taldeetako langileek gehienez ere 40 lan-ordu izanen dituzte astean, astelehenetik ostiralera. Urte osoan, gehienez ere, 1.592 ordu izanen dira.

Larunbat eta igandeetako atsedena lan-arrazoiengatik ezin baldin bada egun horietan hartu, baita jaiegun eta opor egunen kasuan ere, proportzio berean hartuko da beste egun batzuetan, eta horretarako, lan-egutegia negoziatu beharko da. Dena dela, larunbatetan lan egindako orduak lanegunaren %150eko balorazioa izanen dute.

Lan-egutegiaren barrenean ikasleak klaseetara joaten ez diren aldietarako, lanaldi jarraituak itundu ahalko dira eskuarki lanaldi zatituan aritzen diren ikastolako langile guztientzat, irakasle izan ala ez.

Lanaldi jarraituan aritzen diren langileek hamabost minutuko atsedenaldirako eskubidea dute, lanaldiaren barrenean. Tarte hori lanaldikotzat hartuko da.

Irakaskuntzaz kanpoko langile guztiek eta Haur Hezkuntzako Hezitzaileek bi egun, ordainduak, hartzeko eskubidea izanen dute, beraien aferetarako.

2. KAPITULUA.- OPORRAK

32. artikulua.- Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiek eskubidea dute udan 45 egun natural jarraituko oporraldi ordaindua hartzeko, lanean aritutako urte oso bakoitzeko.

33. artikulua.- II, III eta IV taldeko langileek, Hitzarmen honen esparruko ikastola guztietan, eskubidea dute zortzi egun naturaleko oporrak hartzeko Aste Santuan eta bederatzi egun natural Eguberrietan; bi kasuotan egun jarraituak izanen dira, baina ikastolek txandak egin ahalko dituzte langile hauekin, zerbitzua mantendu ahal izateko. Egun horien berezitasuna dela eta, langileek denetara bi egun gehiago izan ahalko dute atsedeen hartzeko, baina ikasleen oporraldiaren barrenean. Halaber, irakasleek, besterik dioen itunik ezean, ikasleendako opor berberak izanen dituzte Eguberrian eta Aste Santuan.

34. artikulua.- Bere lanpostua urtean zehar uzten duen langileak udako oporren zati proportzionalerako eskubidea izanen du soilik, eta ikasturtean lan egindako denbora kontatuko zaio.

3. KAPITULUA.- GAIXOTASUNAK ETA BAIMENAK

Kapitulu honetan jasotako neurriak Langileen Estatutuaren arabera egokituko dira. Beti ere, honekiko tradizionalki onartutako hobekuntzak negoziatuko direlarik.

35. artikulua.- Gaixotasuna.-Eginkizunak ohi bezala betetzeko ezinduta uzten duen gaixotasun edo istripurik gertatuz gero, hitzarmen honen eraginpeko langileek eskubidea dute lizentzia hartzeko, erabat sendatu arte, behar duten denbora guztian. Bitartean, lan-jarduera bete izatera zegokiekeen lansari arrunt osoaren %100 eskuratzeko adinako osagarri ekonomikoa ordainduko zaie.

36. artikulua.- Haurdunaldia.- Amatasun atsedenaldirian Haurdunaldiarengatik lanerako aldi baterako ezintasuna duen emakumeak bere ordainsari osoaren % 100 eskuratzeko behar duen osagarria jasoko du.

37. artikulua.- Lizentziak eta baimenak.

A) Baimen ordainduak:

1.- Haurdunaldia eta gurasotasuna:

Jardunean jarraitzea hautatuz gero, emakumeak haurdunaldi eta erditzeagatiko lizentzia eskuratzeko eskubidea izanen du, ordainsaririk galdu gabe. Lizentziari ezin izanen zaio uko egin eta ez da inoiz 18 aste baino gehiagokoa izanen erditu aurretik eta ondotik hartutako 2 aldien arteko batura. Tartean udako oporrak suertatuz gero, gehituko dira. Erditzean bat baino gehiago edo/eta seme/alaba ezgaitasun jaioz gero, 20 astekoa izanen da lizentzia (bat amarentzako eta bestea beste gurasoarentzako); ama hiltzen bada, beste gurasoak lizentzia osoa hartu ahalko du, umeaz arduratzeko. Alabaina, bi gurasoek lan egiten badute, amak badu aukera, amatasunaren atsedenaldiria hasterakoan, gehienez ere hamar aste beste gurasoaren esku uzteko, Langileen Estatutuaren 48-4 artikuluan aipatzen diren baldintzetan.

Ikastolaren jarduera berezia eta hezkuntzarako, zaintzarako, adin txikikoen arreta eta ikasleentzako lehentasunezko eskubideak kontuan hartuz, haurra jaiotzeagatiko etendura-aldien disfrutatzea etenik gabekoak izatea gomenda dezakete ikastolek.

Lizentzia hori gaixotasun edo istripuagatiko lizentzia bezala eskatu, frogatu eta emanen da.

a.- Halaber, emakumeak, titia eman behar duen garaian (bederlatzi hilabete), ordu beteko eskubidea izanen du lanetik gelditzeko, bi zatitan banatzen ahal dena. Bestela, eskubide horren truke lanaldia ordu betez murrizten ahal da, helburu berarekin, ordainsaririk galdu gabe. Eskubide horren truke, ordaindutako hiru aste gehiago hartu ahalko dira amatasun baimenaren ondotik.

Bi gurasoek lan eginez gero, bietako edozeinek hartzen ahal du baimen hori, ordu beteko atsedena edo egunak pilatzea, alegia, bere hitzarmenean bilduta badago.

b.- Adopzio edo harreretan, umeen kargu egiten den edozein gurasok 18 asteko eskubidea izanen du ordainsaririk galdu gabe, haurra etxera ekartzen denetik aitzina, beste edozein lan ordaindu uzten bada. Gainerako alderdiak Langileen Estatutuak dioen arabera arautuko dira.

Bi gurasoek lan egiten badute, interesdunek nahi bezala banatuko da lizentzia: aldi berean edo bata bestearen ondoren, baina tarterik utzi gabe eta aipatu mugekin, betiere.

Ikastolaren jarduera berezia eta hezkuntzarako, zaintzarako, adin txikikoen arreta eta ikasleentzako lehentasunezko eskubideak kontutan hartuz, haurra jaiotzeagatiko etendura-aldien disfrutatzea etenik gabekoak izatea gomendatzen da.

2.- Langilea, aurretik abisatu eta justifikatuta, lanetik atera daiteke, ordainsari osoa jasotzeko eskubidearekin, arrazoi hauetako bat dela medio eta honenbeste denborako, gertaera eragilearen unean:

a.- Norberaren ezkontzogatik, 20 egun naturaleko eskubidea izanen du langileak, ezkondu aurretik edo ondotik hartzeko, eta ordaindu gabeko 15 egun natural gehitzen ahal zaizkie.

Langilearen gurasoak, senideak edo seme-alabak ezkontzen badira, egun natural bat hartzeko eskubidea izanen du. Egun hori ezkontzakoa izanen da, nahitaez.

b.- Ahaideen gaixotasun larri edo heriotzogatiko lizentzia. Heriotza gertatuz gero, gertaera eragiletik aitzina hartuko da lizentzia. Gaixotasun larria denean, berriz, gaixotasunak dirauen bitartean, gehienez honako iraunaldiko lizentzia har daiteke:

- Hiru egun natural, gurasoak hilez gero.
- Hiru lanegun, seme-alabak hilez gero.
- Bost lanegun, senarra edo emaztea hilez gero.
- Bi egun natural, senideak, aitona-amonak edo bilobak hilez gero.
- Bi egun natural, guraso, aitona-amonak, biloba edo senideen gaixotasun larria frogatuz gero.
- Bost lanegun, ezkontidearen edo seme-alaben gaixotasun larria frogatuz gero.

Baldin eta 300 kilometrotik gorako bidaia egin behar bada, lehen aipatutako lizentziak bi egun gehiago luzatuko dira.

Gaixotasun larriak bere horretan jarraitzen badu, denboraldi bereko bigarren lizentzia ordaindurako eskubidea izanen da, lehenbizikoa amaitu eta 30 egun jarraian iragan ondoren

Gaixotasun larriak dira, irizpide orokor gisa, ospitalean egotera behartzen dutenak edo/eta Langileen Estatutuak arautzen duena.

Behin eta berriro, ordaindu gabeko lizentziatarako eskubidea izanen dute denboraldi berberarekin, azken lizentzia amaitu eta 30 egun jarraian iraganez gero.

Artikulu honetan aipatu diren ahaidetasun erreferentzia guztietan odol-ahaidetasuna eta ezkontza-ahaidetasuna bilduta daude.

c.- Medikuen kontsultategietara joateko.

Kontsulta orduak eta lanekoak batera direnean, lizentziak ez du ordu mugarik izanen ohiko medikuarengana eta gizarte segurantzako espezialistengana joateko. Gehienez ere, 15 ordu hartzen ahal dira urtean seme-alabak, gurasoak edo bikotekidea medikuarengana laguntzeko. Beti ziurtagiria beharko da.

d.- Ohiko bizilekuz aldatzeko edo aldaira egiteko.

Ohiko bizilekuz aldatu edo aldaira egiteko, egun natural bat hartzeko eskubidea dago.

e.- Utzi ezinezko eginbehar publiko eta pertsonalak betetzeagatik, lizentzia hartzeko eskubidea izanen dute, haiek betetzeko behar den denborarako, lan-orduetatik kanpo ezin burutu badira. Hitzarmen honetan hauek dira utzi ezinezko eginbehar publiko eta pertsonalak:

1.- NAN, gidabaimena, pasaportea eta erregistro eta organismo ofizialetako ziurtagiriak ateratzea edo berritzea.

2.- Epaitegi eta komisaldegietako zitazioak.

3.- Kargu hautetsiak erabiltzea, hala nola, zinegotzia, diputatua, batzarkidea edo parlamentarioa.

Aurreko ataleko hirugarren zenbakian aipatu diren eginbeharrak bete ahal izateko, hiru hilabetez lan-orduen %20 baino gehiago ezin bada lanean eman, ikastolak langilea nahitaezko eszedentzian utzi ahalko du.

Langileak, eginbeharrak bete edo karguan aritu behar duela eta, sari edo dietarik jasotzen badu, kendu eginen zaio horien zenbatekoa ikastolan jasotzeko eskubidea duen ordainsarrietatik.

3.- Artikulu honetan bildutako atal guztietan bikotearekin elkarbizitza egonkor bati ekiten dion langileak edukiko du lizentziaren eta baimenaren eskubidea, honela egiaztatu ondoren:

- Elkarketa zibilen Udal Erregistroa balego, bertan erregistraturik dagoenaren egiaztagiria.

- Halako erregistrorik ez balego, Udalak eginiko elkarbizitzari buruzko egiaztagiria; horretaz gain, hastera doan elkarbizitzaren izaeraz zinpeko aitormena.

B.-Ordaindu gabeko baimenak:

1.- Legezko zaintza dela eta, langileren batek hamasei urtetik beherako adin-txikiko edo ordaindutako lanik egiten ez duen gorputz edo adimenaz ezgaitasuna duen norbait bere kargu izanez gero, eskubidea izanen du lanaldia murrizteko, zortziren bat gutxienez eta erdia gehienez ere, lansaria ere hein berean murriztuta, inongo eragin ekonomikorik gabe ikastolarentzat.

Ohiko lanaldira itzuliko den eguna baino 15 egun lehenago idatziz jakinarazi beharko dio ikastolari.

2.- Langile guztiek, urtero, ordaindu gabe, 15 eguneko baimena eskatu ahalko dute, horretarako arrazoiak agertuta. Eman egin beharko zaie 15 egun lehenagotik abisatuz gero.

Baimen hori bi zatitan bana daiteke gehienez. Bi zati horiek bilduta, ezin izanen da aurreko lerroaldean ezarritako 15 eguneko baimena gainditu.

3.- Ikastolan zerbitzu emanez bost urtetik gora daramaten langile guztiek hiruhileko bateko baimena eskatu ahalko dute eskola garaian, soldatarik gabe. Gutxienez, hiru hilabete lehenago egin beharko dute eskaera. Ikastolako Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak eskaeraren ondorio pedagogikoak eta antolakuntzakoak aztertu ondoren emanen dute baimena, baldin ikastolako absentismoaren %6 gainditzen ez bada. Baimena eskuratuz gero, ez da ordaindu gabeko gainerako hautapen libreko baimenatarako eskubiderik izanen ikasturte horretan.

Aipatu absentismoa neurtzeko, ez dira gurasotasun baimenak kontuan hartuko.

4.- Ikastolaren zerbitzuan gutxienez hamar urte egin izana frogatzen duen edozein langilek, idatziz eta maiatzaren 15a baino lehen, ikasturte oso batean lanaldia murrizteko eskatu ahalko du, haren ohiko iraupenaren heren bat gutxienez eta erdia gehienez. Hein bereko murrizketa izanen du lansarian.

Ikastolako Zuzendaritzak, langileen ordezkariekin batean, eskaeraren ondorio pedagogikoak eta antolakuntzakoak aztertu ondoren, proposamen bat egingen du, eskatutakoa hurrengo bi ikasturteetako batean hartzeko.

Proposamen horretan honako hauek sartu ahalko dira: maila aldaketak, zer irakasgai eman edo destinoa, eta orduak eskatutako murrizketari egokitzea.

Lizentzia emandakotzat joko da bi aldeek akordioa sinatzen dutenean eta eragina izanen du ikasturte baten irailaren 1etik ikasturte bereko abuztuaren 31 bitarte.

Lizentzia amaitutakoan, besterik gabe, lehengo egoerara itzuliko da, eta ez da eskaera berririk onartuko harik eta lizentzia bat amaitu eta sei urte iragan arte, aldeek besterik adostu ezean.

5.-Legeak genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen diren langileek babeserako edo gizarte-laguntza osoa eraginkortasunez jasotzeko eskubidea izango dute, baita lanaldia murriztekoa, soldata proportzioan jaitsita, edota lanaldia berrantolatzekoa ere, lan-ordutegia egokituz, lan-ordutegi malgua izanez, edo ikastolan lanaldia antolatzeako erabiltzen diren beste modu batzuez baliatuz.

4. KAPITULUA.- EGUNERATZE ETA HOBEKUNTZA IKASTAROAK

38. artikulua.- Hobekuntza ikastaroetarako, baimenarekin batera ordainsaria jasotzeko eskubidea izanen da, ikastolako kudeaketa organoaren onespina izanez gero, betiere. Ikastaro horietan parte hartu ahal izateko irakasleari gutxienez 35 ordu emanen zaizkio, nahiz ikastaroa ikastolatik kanpo egin, baina egin duela frogatu beharko da. Era berean, eskubide hori bera izanen dute lanaldiaren %50 bederen betetzen duten II, III eta IV taldeko langileek.

Langileak beka baldin badu, ikastolak horren zenbatekoaren eta langilearen lansariaren arteko aldea besterik ez du ordainduko.

Hobekuntza ikastaroetan parte hartzeko baimen eskaerak langileen %5 baino gehiago badira eta ikasleen oporraldiaz kanpora bada, ikastolako kudeaketa organoek baimenak emateko modu egokia bilatuko dute, ikastolaren beharrei, antzinatasunari dagozkion merezimenduei eta interesdunek baimen hori eskatu gabe iragandako denboraldiari begiratuz.

39. artikulua.- Titulu profesionalen bat lortzeko ikasten duten langileei lizentzia hauek emanen dizkiete ikastolek:

a.- Deialdi ofizialeko azterketetara joateko behar dituztenak, alde zurretik interesdunek ikasketa horietan matrikula egina dutela eta ikastera joaten direla frogatuta. Lizentziak egun batekoak izanen dira azterketa bakoitzeko, eta hiru egun naturalekoak ere izan daitezke 150 km baino urrutiago joan behar dutenean.

b.- Lanaldia %50 arte gutxitzea, kudeaketa organoaren ustez ikastolarentzat baliagarri den titulu profesionalen bat eskuratzeko ikasketak egiten badituzte, baldin eta haien lan-orduak ikastolako zuzendaritzak ikasturte horretarako ezartzen dituen beharretara moldatzen ahal badira. Lizentzia hori ikasturte bakoitza hasi baino lehen berrikusiko da, eta ez da ordainduko.

40. artikulua.- Ikastolaren edo langilearen ekimenaz, eta orduan ikastolako kudeaketa organoaren onespena beharko du, hobekuntza ikastaroak antolatzen ahal dira. Langileek behar adina denbora izanen dute haietan parte hartzeko eta ordainsariak oso-osorik jasoko dituzte, baita ikastaroaren gastuak ere (ikastaroaren gastuen artean bidaiak, egonaldia, mantenua eta matrikula kontatuko dira).

5. KAPITULUA. - ESZEDENTZIAK

41. artikulua.- Eszedentzia borondatezkoa edo nahitaezkoa izan daiteke. Nahitaezkoa, lanpostua gorde eta antzinasuna kontatzeko eskubidea emanen duena, ikastolari alde aurretik idatziz jakinarazita, kasu hauetan emanen da:

a.- Lanera joatea galarazten duen kargu publikoren baterako izendatu edo hautatua izateagatik.

b.- Probintzian edo esparru zabalago batean eginkizun sindikaletan aritzeagatik, baldin eta langilearen sindikatuak ikastolen sektorean ordezkaritza nahikoa badu.

c.- Ikastolen Elkarteetan zerbitzuak emateko edo Ikastolen Elkarteak ados egonik eta haiek eskaturik, zenbait jarduera burutzeko.

42. artikulua.- Nahitaezko eszedentzian dagoen langileak, gehienez ere, 30 egun naturaleko epean itzuli beharko du bere lanpostura, eszedentzia hartzera behartu zuen zerbitzua, kargua edo zeregina uzten duenetik aitzina.

43. artikulua.- Borondatezko eszedentzia langileak eskatzen duena da, eta horretarako, ikastolan urtebeteko antzinasuna beharko du bederen, eta aurreko lau ikasturteetan eszedentziarik hartu gabea izatea. Aldez aurretik eskatu beharko da, ahal den denbora guztiaz eta irailaren 1etik aurrera hartuko da, besterik hitzartu ez bada.

Borondatezko eszedentzia hartzeko baimena urtebeterako emanen da gutxienez, eta bost urterako gehienez.

44. artikulua.- Borondatezko eszedentzia hartu duen langileak zentzora itzultzeko lehentasunezko eskubidea izanen du baldin eta bere espezialitateko edo lan kategoriako lanpostu hutsik bada. Aldi horretan antzinasuna ez zaio kontatuko.

Lehenbiziko hiru urteetan, ikastolak besterik gabe itzuli ahal izatea ziurtatuko du eta horretarako behar diren neurriak hartuko ditu, hala nola ordezen kontratuak eta abar non ez duen enpresak bitarte horretan plantilla finkoa murrizten. Nolanahi ere, aldi baterako kontratua (eta ez ordezenekoa) duen langileren bat bada, besterik gabe itzultzeko eskubidea izanen du.

Halaber, borondatezko eszedentzia har dezakete ikasturtean (abuztuak 31) haurra izan, adoptatu edo harreran jasotzen duten gurasoek ikasturtea amaitu bitartean, lehen aipatu urte horiek ezertan kontuan hartu gabe, eta itzulera automatikoa izanen da. Horretarako, haurra izategatik nahitaezko lizentzia hartu behar dutenean jakinarazi beharko dute. Bi gurasoak lan egiten dutenean, batek bakarrik erabiliko du eskubide hau.

Langileak, gizon nahiz emakume izan, borondatezko eszedentzia hartu ahalko du, itzulera automatikoarekin, ikasturtea amaitu bitarte (abuztuak 31) 37. artikuluko A.2.b atalean jasotzen diren kasuetan.

45. artikulua.- Gaixotasun larrian dagoen etxeko baten kargu egiteko, odolkidetasuna lehen edo bigarren mailakoa izanik, eszedentzia ez da 24 hilabete baino gehiagokoa izanen.

46. artikulua.- Langileak gehienez ere hiru urteko eszedentzia hartzeko eskubidea du, semearen edo alabaren kargu egiteko, haurra jaio edo adoptatzen duen egunetik aitzina. Hurrengo seme-alabek beste eszedentzia baterako eskubidea emanen dute, baina lehendik beste bat izanez gero hura bukatu egingen da. Bi gurasoek lan egiten dutenean, batek bakarrik hartu ahalko du eskubidea eta itzulera automatikoa izanen da.

Borondatezko eszedentzia, langileak beka duelako, ikasketa bidaiak egin behar dituelako edo bere espezialitateko hobekuntza ikastaroetan parte hartzeko bada, antzinasuna kontatu egingen zaio eszedentziak dirauen bitartean, eta lanpostura zuzenean itzultzeko eskubidea izanen du.

Horretarako, gehienez ere zazpi egun daude.

Borondatezko eszedentzia probintzian edo beste esparru zabalago batean lan sindikaletan aritzeko bada, eta sindikatuak behar adinako legezko ordezkariak badu, lanpostua gorde eginen zaio, aurreko atalean itzultzeko esandako baldintza berberekin.

47. artikulua.- Nahitaezko eszedentzian daudenak eta kapitulu honetan adierazitako eszedentzia bereziak dituztenak, haiek amaituta, ezarritako epeen barrenean lanpostuetara itzultzen ez badira, behin betiko baja emanen zaie ikastolan.

IV. TITULUA. - ORDAINSARIAK

1. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

48. artikulua.- Hitzarmen honen aplikazio eremuan sartzen diren langileen ordainsariak, oinarritzko lansaria eta osagarriak dira.

Hilabetea amaitu eta hurrengoaren lehen bost eguneko epean ordainduko dira lansariak. Eskudirutan, txeketan edo banku taloitari edo transferentzia bidez ordainduko da. Beste modu batera ordaintzea ere erabaki ahalko da. Banku bidezko transferentzien kasuan, langileak adieraziko du zein entitatetan egin diru-sarrera.

49. artikulua.- Aldi baterako eta arrazoi justifikatuen bidez, langileak bere lanbide kategoriarik dagozkion bakoitzaren gehiagoko eginkizunen bat hartzen badu, ordainsaria ere jasoko du egoera horretan dirauen bitartean.

50. artikulua.- Langile batek, urte batean sei hilabetetik gora, edo bi urtetan zortzi hilabetez, dagozkion eginkizunak bakoitzaren gehiagokoak egiten baditu, eskubidea izanen du kategoriarik dagozkion ordainsariez aldatzeko, behar den titulazioaren jabe baldin bada.

51. artikulua.- Langileak aurrerakinak jasotzeko eskubidea du jada egindako lanaren arabera, aurretik behar hori frogatzen badu, eta ez da hilabeteko lansariaren %90 baino handiagoa izanen.

52. artikulua.- Antzinatasun osagarria.-Osagarri honentzat urtero I. Eranskinean adierazitakoa ordainduko da, hirurteko bakoitzeko. Hirurteko bakoitzaren zenbatekoa, hura bete eta hurrengo hilabeteko 1. egunetik aitzina hasiko da sortzen.

53. artikulua.- Aparteko saria, langileak enpresan duen antzinasunagatik.-Aparteko sari bat ezarri da, antzinasunagatik, modu honetan eta zenbateko hauekin:

- Ikastolan, lanean, 25 urte betetzean, aparteko sari bat ordainduko da, dena batera, langileak bost hilabetetan jasotzen duenaren adinakoa.
- Ikastolan, lanean, 30 urte betetzean, aparteko sari bat ordainduko da, dena batera, langileak hilabeteetan jasotzen duenaren adinakoa.
- Ikastolan, lanean, 35 urte betetzean, aparteko sari bat ordainduko da, dena batera, langileak hilabeteetan jasotzen duenaren adinakoa.
- Ikastolan, lanean, 40 urte betetzean, aparteko sari bat ordainduko da, dena batera, langileak hilabeteetan jasotzen duenaren adinakoa.

54. artikulua.- Hitzarmen honen aplikazio eremuan sartzen diren langileek, hilabetetik gorako mugaegunaren aldizkako osagarri bezala, aparteko bi eskersari jasoko dituzte, hilabeteko arrunt baten adinakoa bakoitza, ordaintzeko orduan.

Uztailaren 1a eta abenduaren 31 baino lehen ordainduko dira.

55. artikulua.- Lana utzi edo urtean zehar sartzen diren langileei, lehen aipatu hilabetetik gorako mugaegunaren osagarriak ordainduko zaizkie, horien zenbatekoa lan egindako denboraren arabera, urte erdika, banatuz. Ikastolako titularra eta langileak ados egonik, aparteko bi eskersariak 12 hilabetetan banatzea erabaki ahalko da, ordura arte horrela egin ez bada.

56. artikulua.-

a.- Ikastolaren garraio gastuak.

Ikastola hirigunetik kanpo duten ikastoletako langileek, joan-etorrietako gastuen ordainez, dohainik erabili ahalko dute eskolako garraioa, horrelakorik baldin bada eta indarrean dagoen legeari kontra egiten ez bazaio.

b.- Bidaia gastuak eta dietak.

Ikastolak horretara behartzen duelako langileak joan-etorrietan bere ibilgailua erabili behar badu horren ordaina jasoko du, 0,40 euro, egiten duen km bakoitzeko. Dietaren balioa 24 eurokoa da egun oso bakoitzeko eta 12 eurokoa egun erdirako. Bere etxetik kanpo gaua egin behar badu, diru horri 18 euro gehituko zaizkio.

2. KAPITULUA.- LANSARIEN GEHIKUNTZAK

57. artikulua.- Ikastoletako langileak.-2019rako, I. Eranskineko Lansari Tauletan ezarri dira langileen lansariak, haien urteko lanaldiari dagozkionak.

Eta desberdinetan lan egiten duten langileen lansariak proportzionaltasunez lanaldia eta funtzioen arabera gauzatuko dira . Zatikako kontratuen soldata: Zatikako kontratuen soldata kalkulatu ahal izateko ondorengo formula erabiliko da:

JASO BEHARREKO SOLDATA		
IRAKASLEAK	$\frac{\text{Urteko soldata}}{1.180}$	X lan egindako
EZ IRAKASLEAK	$\frac{\text{Urteko soldata}}{1.592}$	X lan egindako

2019 urterako Lansari Taulak hitzarmenaren Batzorde Mistoak ezarri ditu, lansariak berrikusteko akordioak aplikatuz. Horretarako, aldeek kontuan hartu dute Foru Administrazioarekin hitzartutako hezkuntza itunen eboluzioa. Nafarroako Gobernuak itunpekoan aparteko soldata igoera eginez gero, ikastoletan aplikatzeko konpromisoa negoziatuko da Batzorde Mistoan.

58. artikulua.- Hitzarmen honetan erabaki diren lansari guztiak, antzinasuna barne, 27. eta 30 artikuluetan zehaztutako lanaldiaren arabera ezarri dira irakasleentzat, eta 31. artikuluen arabera II., III. eta IV taldeetako langileentzat.

V. TITULUA.- LAGUNTZA ERREGIMENA

1. KAPITULUA.- SEGURTASUNA ETA HIGIENEA

59. artikulua.- Ikastolek eta Hitzarmen honen eraginpeko langileek Segurtasun eta Higieneari buruz Langileen Estatutuaren 19. artikuluko xedapenak beteko dituzte, baita gainerako xedapen orokorrak ere. Halaber, urtero, azterketa mediko bat egiteko eskubidea izanen dute ikastolaren kontura. Azterketa hori, gutxienez, honako miaketa hauetaz osatuko da: audiometria, fotoserazioa, ikusmenaren kontrola, odolaren eta gernuaren analisia, historia klinikoa, miaketa medikoa eta miaketa bereziak, hau da, elektrokardiograma, espirometria, eta abar, horien beharra izanez gero.

2. KAPITULUA.- HOBEKUNTZA SOZIALAK

60. artikulua.- Ikastolek lantegi eta laborategietako arropaz hornituko dituzte haietan aritzen diren langileak. Orobat, menpeko langileak, behar dutenaz. Garbiketako langileei, gainera, oinetako egokiak emanen zaizkie bete behar duten lanerako.

Irakasleei (I. taldea), beraiek eskaturik, edo lehendik datorren ohitura delako, mantal bat edo antzeko jantziren bat, irakaskuntza lanean erabili beharko dutena, emanen zaie urtero.

61. artikulua.- Erretiroa.- **Ikusi 5. Eranskina.** Derrigorrezko erretiroa, indarrean dagoen araudiak ezarriko du, baldin eta langileak bere lanurteetan gizarte segurantzaren sistema publikotik edozein erretiro-sari jasotzeko adinako gabezialdia bete badu.

2019ko irailaren 1etik eta Nafarroako Itunpekoan Hezkuntza Departamentuarekin 2017ko irailaren 7an bi aldeek sinatutako akordioko erretiro partziala/errelebo kontratuari buruzko zazpigarren neurria indarrean dagoen bitartean, ondorengo baldintzetan emango da:

Nahitaez finkatu adinetik erretiro aurreratzen duten langileek erretiro aurreratzeko pizgarrirako eskubidea izanen dute, eskala honen arabera:

- 64 urtetan: 2 hilabeteko soldata.
- 63 urtetan: 3 hilabeteko soldata.

Aipatutako pizgarria erretiro partzial aurreratuarekin bateraezina izango da.

Hilabeteko horien zenbatekoa kalkulatzeko, ordainsari apartekoen zati proportzionala hartuko da kontuan.

Ikastolek erretiro aurreratua, erabatekoa edo partziala, emanen diete eskubide hori duten langileei, baldintzak betetzen den datan eskatuz gero. Horretarako, errelebuko kontratua eta erretiroa adina aurreratzekoa, indarra duen legerian bildutakoak, sustatuko dituzte.

Emandako zerbitzuen alderako pizgarrirako eskubidea izanen dute erretiro aurreratua eta erabatekoa hartu duten langile horiek.

Erretiro partzialean, egungo legeria indarrean dagoen bitartean, errelebatutako langileak jardunaldia gutxienez %50 murriztuko du. Errelebulariak errelebu-kontratua mugagabea izanen ez balu, kontratua automatikoki mugagabe bihurtuko litzateke errelebu-kontratua amaitutakoan. Salbuespena lirateke errelebu-kontratuak dirauen bitartean ikasgela kopurua murriztu duten Ikastolak, kasu hauetan Ikastolak berak langileen ordezkariekin adostasunez erabakiko dute kontratua mugagabe bihurtuko den ala ez. Adostasunik ez balego, erabakia Kontratazio Batzorde Teknikoan hartuko da Ikastola eta langileen ordezkarien argudioak aztertu ondoren.

Nafarroako Gobernuak Akordioak, zatikako erretiroaren kotizazioaren kostua bere gain hartzen ez duenean, aurreko hitzarmenak zekarren artikulua indarra hartuko du:

Nahitaez finkatu adinetik erretiroa aurreratzen duten langileek erretiroa aurreratzeko pizgarrirako eskubidea izanen dute, eskala honen arabera:

- 64 urtetan: 2 hilabeteko soldata.
- 63 urtetan: 3 hilabeteko soldata.
- 62 urtetan: 4 hilabeteko soldata.
- 61 urtetan: 5 hilabeteko soldata.

Hilabeteko horien zenbatekoa kalkulatzeko, ordainsari apartekoen zati proportzionala hartuko da kontuan.

Ikastolek erretiro aurreratua, erabatekoa edo partziala, emanen diete eskubide hori duten langileei, eskatuz gero. Horretarako, errelebuko kontratua eta erretiroko adina aurreratzekoa, indarra duen legerian bildutakoak, sustatuko dituzte. Emandako zerbitzuen alderako pizgarrirako eskubidea izanen dute langile horiek, lanaldia zenbat murriztu, horren arabera.

62. artikulua.- Hitzarmen honen eraginpeko ikastolek ikasketetarako erregimen lagungarri bat izanen dute. Ikastolan lanaldiaren erdia sartzen duten langileek seme-alaben irakaskuntzako kuota erreala dohainik izateko eskubidea dute, baita, lanaldi txikiagoa izanik, beste lanik ez izan eta ikastolako lansaria familiako diru-sarrera nagusia dutenek ere. Irakasleek eta irakasle ez direnek, mantentze-lanetakoek eta irakaskuntzako zerbitzuetakoek sortutako gastuez osatzen da irakaskuntzako kuota erreala.

63. artikulua.- Ikastolek ofizialki onartutako euskararen titulua (EGA...) eskuratzeko plangintza egingen dute, baita sustatu eta gastuak ordaintzen lagundu ere.

64. artikulua.- Jantokiaz eta sukaldeaz arduratzen diren langileek mantenurako eskubidea dute ikastolan, bertan lan egiten duten egunetan.

65. artikulua.-

a.- Ikastola guztiek aseguru polizak izenpetuko dituzte, honako estaldura hauek bermatuko dituztenak, baldintza eta eranskin hauekin, gau eta egun:

- Heriotza istripuan: 30.000 euro.
- Baliaezintasun erabatekoa istripuagatik: 81.200 euro.
- Heriotza, zirkulazio istripuan: 60.100 euro.
- Baliaezintasun erabatekoa zirkulazio istripuan: 162.300 euro.

Halaber, erantzukizun zibileko polizak izenpetu beharko dituzte, lanean edo ikastolarekin zerikusia duen edozein jardueratan sei ehun mila (600.000) euroko estaldura emanen duena ezbehar bakoitzean. Edonola ere, ikastola erantzukizun zibilaren %100aren kargu egingen da.

Hori izanen da estaldura, non ez den auzitegiek krimenez hartutako egintzarik gertatzen.

b.-Lanbide sustapena: ahalegina egingen da ikastoletako langileen lanbidea sustatzen. Horretarako, ikastola bakoitzean hutsik dauden lanpostuak, ahal bada, bertako langileek beteko dituzte, nahiz eta kategoria txikiagoko lanetan aritu, lanpostu horretan aritzeko behar den gaitasuna eta titulazioa, horren beharrik izanez gero, baldin badituzte. Hori dela eta, ohiko lanaldia baino txikiagoa egiten duen langileak eskubidea izanen du ikastolan sortzen diren lanaldi osoko lanpostuak hartzeko, baldin eta eskatzen den gaitasuna eta titulazioa, horrelakorik behar izanez gero, baditu. Horretarako, aldeek kontuan hartuko dute Foru Administrazioarekin hitzartutakoa Akordioan funts publikoz erabat edo partzialki sostengaturiko irakaskuntza Pribatuko Enpresen VI. Lan Hitzarmenaren eraginpeko irakaskuntza itunduko sektorean, eta Nafarroako Ikastolen hitzarmen kolektiboa).

VI. TITULUA

I. KAPITULUA. - SINDIKATUEN BERMEAK

66. artikulua.- Legez eratua dagoen sindikatu bateko afiliatu diren ikastolako langileek atal sindikala osatu ahalko dute enpresan.

67. artikulua.- Sindikatuek honako berme hauek izanen dituzte:

a.- Sindikatu edo laneko argitalpen eta oharrak ikastolan zabaltzea eta beren afiliatuen kotizazioak jasotzea. Ez zaie afiliatze lanean oztoporik jarriko baina eskubide hori erabiltzeak ez du trabarik sortuko ikastolako ohiko lanean edo jardueran.

b.- Ikastola barrenean nahi adina bilera egitea lan-orduetatik kanpora.

c.- Plantilla osoaren %10 bederen afiliatua duten atal sindikalek haien afiliatu guztietarako (ez banaka) gehienez ere sei egun izanen dituzte urtero, ordainduta, sindikalgintzako ikastaroetan, zentralaren biltzarretan eta antzeko jardueretan parte hartzeko. Lizentzia egun horiek erabiltzeko, derrigorrezko da sindikatuak 48 ordu lehenagotik parte ematea egun bat bakarra hartu behar bada, eta 72 ordu lehenagotik, ordaindutako egun bat baino gehiago hartu nahi bada.

2. KAPITULUA. - SINDIKATUEN ORDEZKARIAK

68. artikulua.- Atal sindikal bakoitzak bere ordezkaria izan ahalko du, afiliatuen artean, ahal bada ekainean, aukeratua.

Behin hautatu ondotik, ikastolari eta bere sindikatuari jakinarazi behar dio.

Hautatzen den ordezkariak bere agintea beteko du urtebetez, irailaren 1etik aitzina.

69. artikulua.- Sindikatuaren ordezkariak ahalmen hauek izanen ditu:

a.- Sindikatua eta ikastolako afiliatuak ordezkatu ditu.

b.- Aldez aurretik ezagutuko ditu sindikatuaren ataleko kideen zehapen, ohar, lekualdaketa eta gainerako egoera pertsonalak.

c.- Kontratu, azken kitatze, eta abarretan, ordezkariak testuak ezagutu beharko ditu, afiliatuak 72. artikuluan adierazitako moduan bere sinadura bota baino lehen.

c.- Ikastolak armairu bat, bere giltza eta guzti, eta iragarki ohol bat utziko dizkio.

d.- Atal sindikalaren ordezkariak Langileen Estatutuaren 68. a), b), c) eta d) artikuluan adierazitako berme pertsonalak edukiko ditu.

70. artikulua.- Atal sindikalen ordezkariak honako hau izanen dute beren esku: **a.-** Ordaindutako ordu batzuk sindikatu lanetan aritzeko, ondoko taula honen arabera:

Langile kopurua	Gutxieneko afiliatuak	Orduak / hilabete
6tik 30 bitarte	%40	7
31tik 100 bitarte	%20	14
100dik goiti	%15	21

30 langile baino gehiagoko ikastoletan, atal sindikalak gutxieneko portzentaia baino afiliatu gehiago baldin baditu, sindikatuaren ordezkariak taulan adierazitako orduak halako bi hartuko ditu.

Atal sindikal bateko enpresa batzordeko kideen edo langileriaren ordezkarien ordu ordainduak sindikatuaren ordezkariari gehitu ahalko zaizkio.

b.- Behar adinako ordutako kreditua duten sindikatuaren ordezkariak egun bat izanen dute hilabetean (laneguna den ostegun bat hilabetean) sindikatu lanetan aritzeko.

Atal sindikalen ordezkariak, nahiz eta kreditu hori ez izan, haien sindikatuak sektorearen %60ko ordezkariak bederen badu, lizentzia ordainduak izan ahalko dituzte urtero bilera horietan parte hartzeko.

Sindikatuak bilera horietara joateko deiturik, bidaiak lanekotzat hartuko dira ondorio guztiekin.

Bidaietako gastuak eta, dietak badaude, haiek ere kobratzeko, nahitaezkoa da ikastolan dokumentu bat aurkeztea, sindikatuaren arduradunak sinatua, bilera zein egun, toki eta ordutan egingen den adieraziko duena.

3. KAPITULUA.- SINDIKATUETAKO AFILIATUAK

71. artikulua.- Ez da langilerik baztertuko sindikatu batean afiliatua izateagatik.

72. artikulua.- Sindikatu bateko afiliatuak diren langileen kontratu, azken kitatze, eszedentzia, zehapen eta ohartarazpenek ez dute baliorik izanen baldin eta sindikatuaren ordezkariak ez badu haien berririk idatzita, jasotzen, egintza horiek aurrera eraman baino lehen. Beraz, ikastolak afiliazioaren berri izan behar du idazki bidez, egintza gertatu baino lehen. Erreklamazioa egin eta hilabeteko epean eman beharko da erantzuna, erabakirik hartu bada. Ez bada hartu eta interesdunak kontraktorik ezer ez badio, mahai parekideak hautatuko du nork egingen duen arbitrajea.

4. KAPITULUA. - NEGOZIAZIOAK ETA I.B.M.

73. artikulua.- Hitzarmena negoziatzeko, mahaian parte hartzen duten sindikatuetako afiliatuek behar adina ordu izanen dituzte Hitzarmena bileretan prestatu eta negoziatzeko.

74. artikulua.- Hitzarmena negoziatzen parte hartzen duen alde sozialak langile bat izendatuko du, sindikatu lanetan baino arituko ez dena. Langile hori ikasturte osotarako izendatuko da eta ikastolaren plantillakoa izaten jarraituko du ondorio guztiekin.

Ikastolak langile bat kontratatu ahalko du bitarteko kontratu baten bidez, izendapenak iraun bitartean haren ordez aritzeko.

75. artikulua.- Enpresan, Probintzian edo Autonomia Erkidegoan sindikatu lana errazteko, hitzarmen honen esparruan ordezkaritza duten erakunde sindikalek orduak metatzea bultzatzen ahal dute, sindikatu bereko enpresa bateko edo gehiagoko langile ordezkarien orduak langile ordezkarri edo enpresa batzordeko kide batek hartuta.

Sindikatu bakoitzak Zentro edo Enpresari Elkarteekin negoziatu ahalko du, bere mailan, aipatu ordu sindikal horien metaketa. Halaber, Enpresari Elkartee ez diete oztoporik jarriko sindikatuek eta Administrazioak gai honetan lor ditzaketan akordioei.

5. KAPITULUA. – LANGILEEN ORDEZKARIAK EDO ENPRESA BATZORDEA

76. artikulua.- Enpresa Batzordea edo, hori gabe, langileen ordezkariek dira ikastolako langile guztien ordezkaritzarako organo kolektiboa.

77. artikulua.- Hauek dira Enpresa Batzordearen edo langileen ordezkarien eginkizunak:

a.- Ikastolan lan-egutegia negoziatu eta sinatzea.

b.- Enpresa esparruko akordioak negoziatu eta sinatzea, langile guztiak ordezkatuz.

c.- Langileen Estatutuaren 62, 64 eta 65 artikuluetan jasotako egitekoak eta eskubideak izango dituzte.

Urtean bost orduko eskubidea ematen zaio Enpresa Batzordeari lantokian langileen batzarrak egiteko, eskola orduetatik kanpo eta lanaren ohiko funtzionamendua gutxien galarazten den moduan. Eskubide hori erabili ahalko dute langile ordezkariek, ordu kopuru berarekin eta baldintza beretan, baita langileek ere zuzenean, gutxienez langileen %25ek dei egiten badu bilerara.

6. KAPITULUA. - ELKARTZEKO ESKUBIDEA

78. artikulua.- Ikastoletako langileek bost ordu izanen dituzte urtean ikastolan bertan bilerak egiteko; langileen ordu osagarrietan eginen dira, ikasleei zuzenean eragin gabe eta jarduera gutxien galarazten den moduan. Langileen ordezkariak, enpresa batzordeak edo plantillaren % 25ak egin ahalko du deia, betiere hogeita lau ordu lehenagotik iragarrita.

VI. TITULUA – Jazarpen moral edo sexualaren prebentziorako protokoloa

79.- artikulua.- Pertsona orok du errespetuzko tratua, duintasunaren eta moral osotasunaren babesa eta diskriminazio ezaren eskubidea. Gure ikastoletako lan-jardueraren ondorioz eta eskubide hauek aintzat hartuz, Nafarroako ikastoletako langileek tratu- berdintasun hau bermatua izan dezaten neurri batzuk hartzea beharrezkotzat jotzen da. Era berean, jazarpen mota guztiak, edozein langileri zor zaion duintasun eta tratu zuzenaren aurkako erasoak izateaz gain, ez onartuak ez baimenduak izango ez diren hutsegite larriak izango dira, eta horrela daude jasota hutsegite eta zigorren atalean.

Hori guztia dela-eta, NIEk eta LAB sindikatuak Lan Hitzarmeneko sinatzaileak, PROTOKOLO honen bitartez, lanean sortutako moral-jazarpenaren edo sexu-jazarpenaren arazoa beharrezko bermekin arautzeko konpromisoa hartzen dute, bai aurrea hartzeko, bai jazarpenaren ondorioz sortutako erreklamazioak konpontzeko, horretarako informazio, formazio, jarraipen eta ebaluazio estrategiak erabiliz. Bi alderdiek garbi adierazi nahi dute, ezarritako xedapenak betetzea eta guztion lankidetzta bermatzeko beharrezkoak diren ahaleginak hedatzea, ikastola bakoitzeko titularren, bertako zuzendaritzaren eta, orokorrean, langileria guztiaren ardura izango dela.

APLIKAZIO EREMUA Protokoloa, Nafarroako ikastoletako langile bai bere erantzukizun legalaren menpe dauden guztiei dagokie, inongo bereizketarik gabe ez harreman laboralagatik ezta bere iraupenagatik ere, eta lan-jardueren esparru osoari eragiten dio, edozein dela ere berau burutzen deneko espazio fisikoa.

Edozein langilek, erasoren bat jasan duela kontsideratzen badu, erreklamazio bat aurkezteko eskubidea du, jazarpenaren erreklamazioari buruzko informazioa inplikatu guztien intimitate eskubidea babestuz erabiliko delarik, intimitate eskubide eta konfidentzialtasuna zainduz.

MORAL-JAZARPENA Moral-jazarpena honela definitzen da: langile batek edo langile talde batek, bakarkako edo taldekako beste langile, guraso, ikasle edo zuzendari-kudeatzaile edo langile talde baten eskutik jasaten duen edo duten psikologia-indarkeria, bidegabekoa, muturrekoa eta neurritz kanpoko, era sistematiko eta errepikatuan, denbora luzez eta lantokian, biktimaren komunikazio sareak suntsitzeko, bere auto-estimua hondatzeko, eraso jasaten duen langilearen lan-baldintzak nahita degradatzeko eta horrela, azkenik, pertsona horrek edo horiek bere edo beraien lana utz dezaten lortuz, haien duintasunean etengabeko kaltea sortuz.

Moral-jazarpenaren elementu nagusia langilearen duintasun profesionalean eta pertsonalean ondorio kaltegarriak eragiteko helburua izatea da, aldez aurretik emaitza kaltegarri hori lortzeko prestatua. Gertakariaren adierazpen modua era askotakoak eta anitzak dira; bere baitan ditu edozein jokoera, adierazpen, ekintza edo eskaera diskriminatzaile, iraingarri, erasotzaile edo bortitz, edota lankideak bizitza pribatuan bidegabe sartzea.

SEXU-JAZARPENA Lan-jardueren esparruan langilearen duintasunari kalte egiten dion izaera sexuarekiko edo sexuan oinarritutako edozein jokabide sexu-jazarpenetzat hartuko da. Jokabide honek adierazpide fisiko nahiz hitzezkoak ukan ditzake, ekintza, hitz edota keinuen bitartez, subjektu aktiboak gizar-tearen aurrean bere jokoera arbuiagarria dela dakielarik eta, subjektu pasiboaren horrela adierazita, biktimak ere gogoko ez dituela. Pertsona baten lanpostuan, lan-ibilbidean edota lan-egoeran eragiteko edo kontrolatzeko hertsadurazko edozein jokabide sexual sexu-jazarpen moduan har daiteke. Pertsona batek edo gehiagok beste pertsona bati, haren sexu edo sexualitatearen izaeran oinarrituta, egoera iraingarri edo umiliagarriren bat jasanarazten baldin badiote, sexu-jazarpen moduan hartuko da baita ere.

PROZEDURA Lehen aipatutako jokoeraren bat gertatuz gero, pertsona bakoitzari dagokio iraingarria eta onartezina iruditzen zaion jokabidea

zehaztea, Eta horretarako egokien ikusten duen pertsona edo egituragana jo ahalko du. Ikastolako egiturek (zuzendaritzako kideek, langileen ordezkariak, artezkaritzak... auzi-jartzailea aholkatzeko eta laguntzeko konpromisoa edukiko dute, beti ere protokolo honetan agertzen diren prozedurez informatuz eta honen aplikazio eskaeran langilea lagunduz.

Sexu edo moral-jazarpenari buruzko erreklamazio edo kexa bat konpontzeko hauek dira eman beharreko urratsak:

a.- Egoera gatazkatsuen jakinarazpena

Auzi-jartzaileak identifikatutako banakako eta taldeko kexa edo erreklamazioa idatziz aurkezten duenean hasiko da beti prozedura (IV. eranskina). Aipatu kexa, itxitako gutun-azal batez jakinaraziko zaie bai ikastolako zuzendaritzari edo ikastolaren titularrari bai sindikatuetakordezkariei, eta hauek ez leudekeen kasutan langileen ordezkariak, prozedura honetaz aditzera emanez.

b.- Kexaren edo erreklamazioaren bideratzea

Prozedurari hasiera emanez, Ikerketa Batzorde bat eratuko da sindikatuen ordezkariak edo hauek ez leudekeen kasutan langileen ordezkariak izendatutako Bitartekari batez eta ikastolako titularrek izendatutako beste Bitartekari batez osatua. Aipatutako Bitartekariak ikastolako partaideak zein kanpokoak izan daitezke, eta bi alderdiek horrela adostuz gero, izaera teknikoko beste Bitartekari bat ere gehitu daiteke. Ikerketa Batzorde honen eginkizuna kexaren gestioa eta ikerketa izango da, bi alderdien arteko adiskidetzeara, eta jazarpen-erreklamazioak konpontzeko proposamenak aurkeztea, beti ere konfidentzialtasun, menekotasunik ezaren eta neutraltasun printzipioetan oinarrituz. Kexa jaso eta Ikerketa Batzordea osatu ondoren, auzi-jartzaileak kexaren erantzukizuna egozten dion pertsonari salaketaren berri eman beharko dio Batzorde honek. Jakinarazpen hau konfidentzialtasuna bermatuko duen edozein bitarteko erabiliz burutu daiteke. Inplikatuak aukeratutako Bitartekariak atzera botatzeko eskaera egin dezakete arrazoi justifikatuak argudiatuz: odolkidetasuna, ahaidetasuna, frogatutako adiskidetasuna ala areriotasuna,... Bitartekariak ere, era berean, arrazoi berberak medio uko egin dezakete. Aipatu eskaerok ikastolako ohiko Segurtasun eta Osasun Batzordera (edo berariaz sor daitekeena) eramango dira. Beronek berehalako erabaki bat hartu beharko du.

c.- Ikerketaren garapena: ebazpen informala eta eginbide formala

Ebazpen informala

Jazarpen kexa edo erreklamazioa zuzenean inplikaturako aldean artean modu informal batean konpontzeko bideak jarriko dira. Bitartekariak, 21 eguneko epe barruan, aldean arteko elkarrizketaren bitartez (Adiskidetze Bilerak) adostasuneko ebazpen batera heltzeko ahaleginak egingo dituzte. Aipatu bileran hartutako erabakiak isilpeko izaera izango duen Akta batean jasoko dira eta eskuragarri jasoko dira bai ikastolaren zuzendaritzaren edo titularren ordezkariarentzat bai sindikatuarentzat ordezkariarentzat, eta hauek ez leudekeen kasutan, langileen ordezkariarentzat. Erreklamazioari bide eman zion jokabidea eten eta bileran hartutako erabakiak aintzat hartzen direla bermatzeko, Bitartekariak beharrezko ikuskatze eta behaketa lanak burutuko dituzte. Alde inplikaturak ebazpen informala bidezkoa ez dela edo arrakastarik ez duela izan irizten badute, ekinbide formalera jo dezakete.

Eginbide formala

Ikerketa Batzordeak gatazka zehatz-mehatz aztertuko du; horretarako, auzi-jartzailearekin elkarrizketak burutuko dira eta ikerketaren garapenean zehar erreklamazioaren harira egoki ikusten dituen edozein pertsonen adierazpen eta hauekin izan beharreko bilera eskaerak luza ditzake. Era berean, prozeduran zehar inplikaturako aldeak konfiantzazko pertsonen laguntza jaso dezakete, ikastolan bertan lan egin ala ez.

d.- Gatazkaren ebazpena eta neurrien hartzea

Erreklamazioa ebaluatu eta egiaztatu ondoren, Ikerketa Batzordeak ikerketaren emaitzen berri eta konponbide proposamenak emanez txosten zehatz bat aurkeztuko die bai ikastolaren zuzendaritzaren edo titularren ordezkariari bai sindikatuarentzat ordezkariari, eta hauek ez leudekeen kasutan, langileen ordezkariari. Txosten hau zuzenean inplikaturako aldeei ere igorriko zaie, ikastolako Segurtasun eta Osasun Batzordearen aurrean errekurritu dezaketelarik. Erreklamazioa jasotzen denetik ebazpen txostena aurkezteko gehieneko epea 60 egunetako izango da, tartean, Ikerketa Batzordeak ustezko biktimaren egoera babesteko beharra ikusiko balu, zenbait prebentzio neurri ezarri ditzakeelarik (auzi-jartzailea eta ustezko erasotzailea lan-espazio ezberdinetan banatuz, haien ordutegiak aldatuz...). Epe hau bete ezean, atzerapenaren arrazoiak xedatzeko edota erreklamazioa ebazteko gaitasun eza azaltzeko txosten bat aurkeztu beharko da.

e.- Konfidentzialtasunaren babesa

Prozesu hauekin lotutako agiri eta eginbide guztiek isilpeko izaera dute eta datuen babeserako arauen eta oinarrizko eskubideen pean izango dira.

PROTOKOLOAREN INDARRALDIA Protokolo honen edukia nahitaez bete beharrekoa da, eta indarrean jartzen da Nafarroako ikastoletako langile guztiei komunikatu ondoren. Indarrean jarraituko du lege edo konbentzio-arauek bere egokitzea eskatzen ez duten bitartean edota esperientziak bere doitzea beharrezko ikustarazten ez duen bitartean.

Protokolo hau bi urtean behin ebaluatuko da aldizka eta alde sinatzaileen arteko adostasuna beharko da aurretiaz edozein aldaketa egiteko.

Prozedura honek ez du agortzen jazarpena jasan duen pertsonak bide administratiboak edota judizialak (zibilak edo penalak) jorratzeko bidea, eginbide honetan ikastolaren aldetik laguntza jaso dezakeelarik.

Ahal den guztietan, NIEk arteko adiskidetzea bilatuko du. Era berean ordea, inongo jazarpenik ez dela onartuko berretsi nahi da. Sexu edo moral-jazarpena egiaztatzearekin batera, ikastolak gure indarrean dagoen lan arloko legeriaren barruan egoki irizten dituen neurri zuzentzaileak abian jarriko ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

I. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ikastolek ezarritako baldintzak mantendu eginen dira hitzarmen honetan zehaztutakoak baino hobeak badira. Modu horretan, ez da langile bakar bat ere galtzen aterako hitzarmen honetan ezarritako atalengatik. Hitzarmen honetan itundutako baldintzak osotasun organiko bat dira eta zatietzinak. Hortaz, aplikazio orduan, osorik hartuko dira. Kasu horretan, Hitzarmen honen hobekuntzak batera hartuko dira kontuan eta edozein arrazoiengatik lehendik daudenekin konpentsatuko, baina konparazioa urteko gutzirakoari begira eginez. Ezar daitezkeen xedapenei dagokienez, aldaketa ekonomikorik badakarte, eragina izanen dute baldin eta, osotara kontuan harturik, Hitzarmen honetan ezarritakoak baino gehiago badira urteko konputuan.

II. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ikastola batean bai alde soziala bai ekonomikoa bat etorritz gero, aldatu ahalko dira testu honetan bildutako lanaldiak, aldez aurretik akordioa sinatzen badute ikastolaren eta langileen ordezkariak; baina balioa izateko, nahitaezkoa da akordioa Hitzarmen honen Batzorde Parekideari igortzea.

III. XEDAPEN GEHIGARRIA

Sektorean, beraiei ezin leporatu zaizkien inguruabarrak direla eta, erretiroa laguntzak murriztuak izan ditzakeen aspaldiko langilerik dagoenez gero, hitzarmen hau sinatu duten aldeek Batzorde Parekidea eratuko dute, egoera horiek ikastola bakoitzean banan-banan izan ditzaketen konpentsazioak aztertzeko.

IV. XEDAPEN GEHIGARRIA

Nafarroako Hezkuntza Administrazioaren diru-laguntzarik ez duten ikastolek Hitzarmen honen tauletan ageri direnez bestelako lansariak ezarri ahalko dituzte, beti ere, testu honen 9. eta 10. artikuluetan araututako Interpretazio Batzorde Mistoak jakinaren gainean egon, eta bere onspen idatzia ematen baldin badu.

V. XEDAPEN GEHIGARRIA

Hitzarmen honetan adostutako lan baldintzak ez aplikatzeko arrazoi ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo ekoizpenekoengatik, Batzorde Parekideak kontsulten eta esku hartzeen aldia agortu ondoren eta adostasunik lortu ezean, aldeak gatazkak konpontzeko judizioz kanpoko prozeduren menpe jarriko dira, eta nahitaezko arbitrajea alde batera utziko da. Alde batera uzteko edo ez aplikatzeko klausula hori eragin eremuaren arabera, Enpresa Batzordearekin edo Batzorde Mistoan adostu beharko da beti lehenago.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

I. XEDAPEN IRAGANKORRA

Hitzarmen honen 53. artikuluan ezarri aparteko sariaren likidazioa eginen zaie Hitzarmenak indarra hartzen duen egunean hogeita bost urteko edo gehiagoko antzinatasuna duten langileei, "Akordioa funts publikoz erabat edo partzialki sostengaturiko Irakaskuntza Pribatuko Enpresen VI. Lan Hitzarmenaren eraginpeko irakaskuntza itunduko sektorean, eta Nafarroako Ikastolen hitzarmen kolektiboa" dela medio eta indarra duen bitartean.

Hezkuntza ituna berritu gabeko ikastolen eta enpleguari eusteko Akordioen babesean lanpostuz aldatutako irakasleek, gaur egun ikastola batean lan egiten badute eta Hezkuntza Administrazioak aurreko ikastolan sortu antzinatasuna onartzen badie, aurreko lerroaldean edo Hitzarmen honen 52. artikuluan adierazi eskubidea izanen dute. Horrek ez du esan nahi ikastolan, gaur egungo kontratua dela bide, daramaten denborari dagokiona baino antzinatasun handiagoa onartzen zaiela.

II. XEDAPEN IRAGANKORRA

Hitzarmen honek indarra duen bitartean, ikastolek ez dute gaixotasun arruntak eta lanetik kanpoko istripuak eragin aldi baterako ezintasunaren sorospena sinatuko lan-istripuetako ugazaben mutualitateekin.

ERANSKINAK

LAN SARIEN TAULA 2019 URTARRILA-EKAINA

	OINARRIZKO SOLDATA	ANT.
I. TALDEA		
A) IRAKASLEAK		
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA		
Irakasle titularra	29.075,92 €	
Irakasle espezialista	27.085,74 €	
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA		
1. zikloko irakaslea	33.368,48 €	
2. zikloko irakaslea	33.368,48 €	
BATXILERGOA		
Irakasle titularra	33.368,48 €	
B) IRAKASKUNTZAKO LANGILE TEKNIKOAK		
Psikologoak, pedagogoak	33.368,48 €	
C) IRAKASKUNTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUETAKO LANGILEAK		
Instruktoea	24.446,00 €	
II. TALDEA		
ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK		
Administrazioko burua edo idazkaria	28.919,79 €	
Administrari-ofiziala	24.705,60 €	
Administrari laguntzailea	21.359,35 €	
III. TALDEA		
ZERBITZU OROKORRETAKO LANGILEAK		
Sukaldari nagusia	23.458,92 €	
Sukaldaria	21.120,91 €	
Sukaldari laguntzailea	19.686,48 €	
Atezaina	20.258,19 €	
Mantentze-lanetako langilea	19.995,00 €	
Jantokiko eta Garbiketako langilea	19.332,36 €	
Zelaia	19.332,36 €	
Zerbitzu anitzetako langileak	19.332,36 €	
IV. TALDEA		
HEZITZAILEAK		
Haur Hezkuntzako Hezitzailea	19.332,36 €	
Heziketa Bereziko Laguntzailea	17.472,00 €	

LAN SARIEN TAULA 2019 UZTAILA-ABENDUA

	OINARRIZKO SOLDATA	ANT.
I. TALDEA		
A) IRAKASLEAK		
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA		
Irakasle titularra	29.145,80 €	
Irakasle espezialista	27.155,62 €	
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA		
1. zikloko irakaslea	33.448,79 €	
2. zikloko irakaslea	33.448,79 €	
BATXILERGOA		
Irakasle titularra	33.448,79 €	
B) IRAKASKUNTZAKO LANGILE TEKNIKOAK		
Psikologoak, pedagoak	33.448,79 €	
C) IRAKASKUNTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUETAKO LANGILEAK		
Instruktorea	24.515,88 €	
II. TALDEA		
ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK		
Administrazioko burua edo idazkaria	28.978,93 €	
Administrari-ofiziala	24.753,12 €	
Administrari laguntzailea	21.400,95 €	
III. TALDEA		
ZERBITZU OROKORRETAKO LANGILEAK		
Sukaldari nagusia	23.505,65 €	
Sukaldaria	21.165,45 €	
Sukaldari laguntzailea	19.729,20 €	
Atezaina	20.300,91 €	
Mantentze-lanetako langilea	20.035,51 €	
Jantokiko eta Garbiketako langilea	19.372,87 €	
Zelaia	19.372,87 €	
Zerbitzu aniztetako langileak	19.372,87 €	
IV. TALDEA		
HEZITZAILEAK		
Haur Hezkuntzako Hezitzailea	19.372,87 €	
Heziketa Bereziko Laguntzailea	17.515,68 €	

LAN SARIEN TAULA 2020

	OINARRIZKO SOLDATA	ANT.
I. TALDEA		
A) IRAKASLEAK		
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA		
Irakasle titularra	30.076,98 €	
Irakasle espezialista	28.023,22 €	
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA		
1. zikloko irakaslea	34.518,87 €	
2. zikloko irakaslea	34.518,87 €	
BATXILERGOA		
Irakasle titularra	34.518,87 €	
B) IRAKASKUNTZAKO LANGILE TEKNIKOAK		
Psikologoak, pedagogoak	34.518,87 €	
C) IRAKASKUNTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUETAKO LANGILEAK		
Instruktorea	25.299,14 €	
II. TALDEA		
ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK		
Administrazioko burua edo idazkaria	29.766,93 €	
Administrari-ofiziala	25.386,25 €	
Administrari laguntzailea	21.955,21 €	
III. TALDEA		
ZERBITZU OROKORRETAKO LANGILEAK		
Sukaldari nagusia	24.128,31 €	
Sukaldaria	21.758,95 €	
Sukaldari laguntzailea	20.298,43 €	
Atezaina	20.870,14 €	
Mantentze-lanetako langilea	20.575,31 €	
Jantokiko eta Garbiketako langilea	19.912,67 €	
Zelaia	19.912,67 €	
Zerbitzu anitzetako langileak	19.912,67 €	
IV. TALDEA		
HEZITZAILEAK		
Haur Hezkuntzako Hezitzailea	19.912,67 €	
Heziketa Bereziko Laguntzailea	18.083,95 €	

I. ERANSKINA: 2019KO LANSARIEN TAULAK

II. ERANSKINA: LANGILEEN SAILKAPENA

I. taldea:

a.- Zuzendaria: hezkuntza jarduerak, alde guztietatik, eta bere gain uzten zaizkion beste batzuk zuzendu, koordinatu eta ikuskatzeko arduraduna da.

b.- Mailako arduraduna: bere mailako irakasleen lanak orientatu, koordinatu eta ikuskatzeko arduraduna da, ikastolako zuzendariaren jarraibide eta orientazioei segituz, zuzenean haren menpe baitago.

c.- Zikloko koordinatzailea: ziklo bateko edo gehiagoko pedagogiaren arduraduna da, mailako arduradunaren edo, horrelakorik ez denean, zuzendariaren jarraibide eta orientazioen menpe.

d.- Arloko burua: BHko irakaskuntza ematen den ikastoletan, bere arloko pedagogiaren arduraduna da, ikastolako zuzendariaren edo mailako arduradunaren jarraibide eta orientazioen menpe.

e.- Irakasle titularra: ikastolako hezkuntza proiektuan ezarritako esparru pedagogiko eta didaktikoaren barrenean, programak behar bezala gara daitezzen hezkuntza jarduera betetzen duena da.

f.- Irakasle espezialista: irakasle titullarrak egiten dituen lan berak betetzen ditu, baina ez du behar den titulazioa, edo irakasle titullarrarenaz bestelako jardueraz arduratzen da.

g.- Langile teknikoak: behar duten tituluen jabe izanik, psikologo, pedagogo,... lanak betetzen dituzte.

h.- Instruktoarea: behar den titulaziorik gabe, ikastolako koadro pedagogikoan jasota ez dauden jarduerak betetzen ditu.

II. taldea:

a.- Administrazioko burua edo idazkaria: bere kargu du ikastolako administrazioaren zuzendaritza edo/eta idazkaritza, eta horren erantzule da titullarraren aitzinean.

b.- Ofiziala: ekimena eta erantzukizuna eskatzen duten burokrazia edo kontabilitate lanak betetzen ditu.

c.- Laguntzailea: administrazio, burokrazia edo liburutegiko lanak betetzen dituen langilea, bere zuzeneko nagusiaren menpe.

III. taldea:

a.- Sukaldari nagusia: sukaldeko langileek egindako lanaren eta ordenaren arduraduna da.

b.- Sukaldaria: janariak prestatzeaz arduratzen da, bere gain du haien itxura eta egoera ona, baita sukaldearen eta tresneriaren txukuntasuna ere.

c.- Sukaldari laguntzailea: sukaldariaren agintepean, hari laguntza ematen dio.

d.- Atezaina: honako lan hauek egiten ditu:

-Bere kargu utzitako tokiak garbitu, zaindu eta mantentzea.

-Gelak eta txoko oro eta sartu-atera dabiltzanak zaintzea, dena ordenatuta egon dadin.

-Ikastolaren eremuko eta eraikinetako atea bere orduan ireki eta ixtea.

-Atean emandako gauzen eta oharren kargu egitea, eta jaso behar dituztenei garaiz eramatea.

-Elementu komunetako argiak piztu eta itzaltzea.

-Kontagailuak, berokuntzako motorrak eta antzeko beste ekipo orokorren ohiko funtzionamenduaz arduratzea.

e.- Mantentze-lanetako edo lorategiko langilea: behar adinako praktika izanik, lorategiak eta ikastolako elementuak zaindu, konpondu eta mantentzen aritzen da.

f.- Jantokiko eta Garbiketako langilea: ikastolan eman behar dituen lan-orduetan, bi lan horiek edo bietako bat egiten du.

g.- Zelarria: laguntza lanetan aritzen da, hau da, garraioa, zainketa eta antzeko beste lan batzuetan.

h.- Zerbitzu anitzetako langileak: berez lanbide ez diren lanetan aritzen dira.

IV. taldea:

a.- Haur Hezkuntzako Hezitzailea: Bi eta hiru urteko geletan haur hezkuntzako irakasle baten ardurapean lan egingen du. Lanbide Heziketako goi mailako zikloko titulazioa izanen du eta lan baldintzak ez irakasleek dituztenak izango dira.

b.- Heziketa Bereziko Laguntzailea: Administrazioak eskaturiko gutxieneko titulazioarekin heziketa behar bereziak dituen ikasle bati edo talde bati gelan barruan edo kanpoan irakaskuntzarako laguntza zerbitzua eskaintzen dion pertsona da. Lan baldintzak Nafarroako Gobernuak ezartzen dituenak izanen dira.

III. ERANSKINA: BERDINTASUNA

Enpresetako lan harremanek berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak izanzen dituzte gidari; besteak beste, ez da sexuarengatiko bereizkeriarik onartuko.

Enpresek eginahalik handiena eginen dute aukera berdintasuna lortzeko haien politika guztietan, batez ere genero berdintasuna. Horretarako, neurriak hartuko dira gizonen eta emakumeen artean inolako laneko bereizkeriarik ez izateko.

250 langile baino gehiagoko enpresetan, betiere enpresa bakoitzean zuzendaritzaren eta langileen legezko ordezkarien artean adostasunik badago, aurreko paragrafoko neurriak Berdintasun Plan baten bidez hartuko dira. Legez ezarritako moduan eta baldintzetan garatu beharko da Plan hori.

Berdintasunerako hartzen diren neurriak ondoko hauei egokituko zaizkie: Enpresek berdintasunerako plan bat prestatu eta aplikatuko dute, aldez aurretik langileen legezko ordezkariekin hitz egin edo negoziatuta, egoki bada, baldin eta lan arloko aginteak zehapen prozeduran erabaki badu zehapen osagarrien ordezkari plan hori prestatu eta aplikatzea, aipatutako erabakian ezarri den moduan.

250 langile baino gutxiagoko enpresetan ere berdintasunerako planak prestatu eta ezartzen ahalko dira, aldez aurretik langileen legezko ordezkariekin hitz eginda.

Enpresetako berdintasunerako planak neurri multzo antolatua dira, egoeraren diagnostika egin ondoren hartu direnak eta helburu dutenak enpresan emakumeek eta gizonen tratua eta aukera berdintasuna izatea, eta sexuarengatiko bereizkeriarik eza.

Artikulu honetako bigarren paragrafoan aipatutako adostasuna lortuz gero, berdintasunerako planek ondoko hauek ezarriko dituzte: lortu beharreko berdintasuneko helburu zehatzak, horiek lortzeko estrategiak eta praktikak eta ezarritako helburuei jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eraginkorrak.

Ezarritako helburuak lortzeko, berdintasunerako planek arlo hauek uki ditzakete, besteak beste: enplegua lortzea; laneko sailkapena; sustapena eta prestakuntza; ordainsariak; laneko denbora antolatzea, laneko, norberaren eta familiako bizitzak uztartzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez; eta sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpena.

Agindu honetako aurreikuspenekin bat ezartzen diren berdintasunerako planak enpresa guztia barne hartuko dute. Hala ere, lantoki batzuei egokitutako ekintza bereziak ere ezartzen ahalko dira.

Bermatzen da langileen legezko ordezkariak, edo, horrelakorik ez bada, langileek berek eskura izanzen dutela berdintasunerako planei eta horien helburuak lortzeari buruzko edukia.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoak ez du alde batera utziko dagokien hitzarmen kolektiboen arabera eskudun den batzorde parekideak berdintasunerako planen jarraipena egitea.

**IV. ERANSKINA: BALIZKO JAZARPEN MORAL EDO SEXUALA
JAKINARAZTEKO TXANTILOIA**

KALTETUAK EGINDAKO JAZARPENAREN DESKTRIBAPENA
Izen – abizenak:
Lanpostua:
Gertakaria:
Data:
Jazarpenaren sorreraren deskribapena:
Jazarpenaren garapenaren eta oraingo egoeraren deskribapena:
Ikastolen jokabidearen deskribapena:
Konponbide posibleak:

5.- ERANSKINA: 61.ARTIKULUA

61. artikulua.- Erretiroa.- Derrigorrezko erretiroa, indarrean dagoen araudiak ezarriko du, baldin eta langileak bere lan-urteetan gizarte segurantzaren sistema publikotik edozein jubilazio-sari jasotzeko adinako gabezialdia bete badu.

2020ko uztailaren 1etik eta 2020ko uztailaren 15ean Nafarroako Gobernuak onartutako Nafarroako Itunpekorako Akordioako erretiro partziala/errelebo kontratuari buruzko bostgarren neurria indarrean dagoen bitartean, betiere langilea aipatutako Akordiora atxikitzen bada, eta atxikimendu hori beharrezkoa bada, ondorengo baldintzetan emango da:

Nahitaez finkatu adinetik jubilazioa aurreratzen duten langileek jubilazioa aurreratzeko pizgarriako eskubidea izanen dute, eskala honen arabera:

- 64 urtetan: 2 hilabeteko soldata.
- 63 urtetan: 3 hilabeteko soldata.

Aipatutako pizgarria erretiro partzial aurreratuarekin bateraezina izango da.

Hilabeteko horien zenbatekoa kalkulatzeko, ordainsari apartekoen zati proportzionala hartuko da kontuan.

Ikastolek jubilazio aurreratua, erabatekoa edo partziala, emanen diete eskubide hori duten langileei, baldintzak betetzen den datan eskatuz gero. Horretarako, errelebuko kontratua eta erretiroa adina aurreratzekoa, indarra duen legerian bildutakoak, sustatuko dituzte.

Emandako zerbitzuen alderako pizgarriako eskubidea izanen dute jubilazio aurreratua eta erabatekoa hartu duten langile horiek.

Erretiro partzialean, egungo legeria indarrean dagoen bitartean, errelebatutako langileak jardunaldia gutxienez %50 murriztuko du. Errelebulariak errelebu-kontratua mugagabea izanen ez balu, kontratua automatikoki mugagabe bihurtuko litzateke errelebu-kontratua amaitutakoan. Salbuespena lirateke errelebu-kontratuak dirauen bitartean ikasgela kopurua murriztu duten Ikastolak, kasu hauetan Ikastolak berak langileen ordezkariekin adostasunez erabakiko dute kontratua mugagabe bihurtuko den ala ez. Adostasunik ez balego, erabakia Kontratazio

Batzorde Teknikoan hartuko da Ikastola eta langileen ordezkarien argudioak aztertu ondoren.

Nafarroako Gobernuak Akordioak, zatikako erretiroaren kotizazioaren kostea bere gain hartzen ez duenean, aurreko hitzarmenak zekarren artikuluak indarra hartuko du:

Nahitaez finkatu adinetik erretiroa aurreratzen duten langileek jubilazioa aurreratzeko pizgarrirako eskubidea izanen dute, eskala honen arabera:

- 64 urtetan: 2 hilabeteko soldata.
- 63 urtetan: 3 hilabeteko soldata.
- 62 urtetan: 4 hilabeteko soldata.
- 61 urtetan: 5 hilabeteko soldata.

Hilabeteko horien zenbatekoa kalkulatzeko, ordainsari apartekoen zati proportzionala hartuko da kontuan.

Ikastolek erretiro aurreratua, erabatekoa edo partziala, emanen diete eskubide hori duten langileei, eskatuz gero. Horretarako, errelebuko kontratua eta jubilazioko erretiro adina aurreratzekoa, indarra duen legerian bildutakoak, sustatuko dituzte. Emandako zerbitzuen alderako pizgarrirako eskubidea izanen dute erretiro langile horiek, lanaldia zenbat murriztu, horren arabera.




948 38 24 74 - 679 14 64 04
ikastolaknafarroa@lab.eus
t.senar@lab.eus

>Nafarroako Ikastolak IRUÑEA Arga Ibaia kalea, 12-14-behea

KONTAKTUAK

Telefonoak

948 38 24 74
679 14 64 04



Postak

ikastolaknafarroa@lab.eus
t.senar@lab.eus

Webguneak eta sare sozialak

www.irakaskuntza.infoadm.org
<https://irakaskuntza.lab.eus>

Twitter: @LABirakasknafar eta @LabIkastolak

Facebook: Lab Irakaskuntza Nafarroa eta Lab.Ikastolak

Telegram: LAB Irakaskuntza Nafarroa

Instagram: [Instagram.com/lab.ikastolak](https://www.instagram.com/lab.ikastolak)



> **Nafarroako Ikastolak**
IRUÑEA Arga Ibaia kalea, 12-14-behea